

hh
hik hasi

185



ESKOLA ALTERNATIBOAK • YOLANDA JUBETO •

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • KATTUKA HAUR-ESKOLA

• EUSKAL UDALEKUAK • ELIXABETE GARMENDIA

6. elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa

oinarriak:
www.elkar.com-en
eta elkar sareko
liburu-denda
guztietan



antolatzailea:

elkar
fundazioa

laguntzailea:



aurkibidea



10
gaia

ESKOLA ALTERNATIBOAK

Gero eta familia gehiagok bidaltzen dituzte euren haurrak ohiko hezkuntza-sistematik kanpo dauden zentroetara, eta pixkanaka ugaritzen ari da eskola alternatiboen kopurua Euskal Herrian. Eskola libre edo demokratiko gisa izendatzen dute askok eure burua, funtsa askatasuna baita, eta injerentziarik gabeko hezkuntza-eredua dute helburu.



18
elkarrizketa

YOLANDA JUBETO

Ekonomialaria eta EHUKo irakaslea da Yolanda Jubeto. Kritikoa da gaur egungo ekonomia-eredu kapitalistarekin, aberastasuna gutxi batzuen eskuetan pilatzea ekarri baitu. Eredu iraunkorrago baten alde, eskolak eta familiek elkarlanean, euren haurrentzat zer nolako bizi-eredua bultzatu hausnartu beharko luketeela uste du eta gakoa kontsumo arduratsua dela dio.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ESKOLA ALTERNATIBOAK: injerentziarik gabeko hezkuntzaren bila

20 elkarrizketa

YOLANDA JUBETO, ekonomialaria eta EHUKo irakaslea

27 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

34 esperientziak

KATTUKA HAUR-ESKOLA: familiei eta komunitateari irekia

33 ekarpenak

EUSKAL UDALEKUAK: uda nahiz negu, auzolana helburu

36 galdeidazue

Zer garrantzia du literatura heziketak eta zein dira horren gakoak? **IRATXE RETOLAZA** eta **AMAIA SERRANO**

40 hik hasi-ren proposamena

GORILA BATEN LEZIOAK antzezlan

42 Atzeko atetik

ELIXABETE GARMENDIA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Kattuka haur-eskola. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-01-28). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



Harpide zaitez, eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.

Duela bi urte agortutako CDa berrargitaratua



- Bidaietako jolasak
- Zotz egitekoak
- Zabuan kantatzekoak
- Txalotako jolasak
- Soka saltoan aritzekoak
- Txikientzako jolasak
- Korroan aritzekoak
- Gomatakoak
- Behatzen jokoak
- Taldean aritzeko jolasak
- ...

www.hikhasi.com

editoriala otsaila

Udako Topaketak 4.000 euroekin?



Hezitzaileen formazioa izan da sorreratik Hik Hasi-ren helburuetako bat: hezitzaile prestatuak izatea, etengabe formatzen ariko direnak eta gizarteak parean jartzen dizkien egoera konplexuei irtenbidea eman eta modu egokian aurrera egingo dutenak.

Hainbat ikastarorekin eta jardunaldirekin, pedagogoen bisitekin nahiz beste hainbat formazio-saiorekin hasi dugu 2014. urtea.

Hezkuntzako kideon artean, eta jendartean, oro har, formatzen eta hobetzen joateko beharra somatzen dela dirudi. Ondorengo belarndientzako mundu hobe nahi bada, hausnarketa sakona egiteaz gain, aldaketarako gakoak zein diren asmatu behar dugu, hezitzaileen artean hitz eginez, baina baita ikasleekin, gurasoekin nahiz herrietako eragileekin gogoeta egin eta neurriak hartuz ere.

Adituek diote haurraren autonomia eta iniziatiba garatzen laguntzeko ahalegin handiagoa egin behar genukeela, haurrak izan behar lukeela bere heziketa-prozesuaren protagonista. Behin eta berriz entzun dugu beren buruaren jabe izango diren pertsona kritikoak behar ditugula, etengabe aldatzen ari den errealitatean, eta uneotan nola-

koa izango den imajinatu ere ezin dugunetorkizunean, malgutasunez eta sormenez aurrera egiteko gai izango diren gazteak. Azken batean beraz, denontzat hobe izango den mundu baten alde egingo duten pertsona arduratsuak heztea dago-kigu.

Orain dela urte batzuk baino birtarteko tekniko indartsuagoak eta ahalmentsuagoak dauzkagu horretarako, baina zertarako eta nola erabiltzen ditugu aurrerapen teknologiko horiek? Pertsonaren eta gizateariaren zerbitzura jartzen al ditugu? Pertsona kritiko eta autonomoak hezteko, ez da nahikoa puntako baliabide materialak eskura izatearekin, hezitzaileek ere formazioa behar dute, hezkuntza modu integratuean ulertu eta alderdi zientifikoteknikotik ez ezik, humanistikotik ere aurrera egiteko bitartekoak.

Horixe bera zioen orain dela egun gutxi Francesco Tonuccik Donostian, Eskola Txikiek antolatuta-

ko jardunaldietan. Eta beste hainbat adituren ustez ere prestakuntza da haurren formazioan aritzen diren heldu horien jarduna eraginkor egiteko erremintetako bat.

Sorreratik beretik horixe da Hik Hasi-ren helburu nagusia, hezitzaile prestatuak izatea, etengabe formatzen ariko direnak, eta gizarteak parean jartzen dizkien egoera konplexuei irtenbidea emango dietenak. Horregatik, urte hauetan zehar, hainbat ikastaro antolatu ditugu irakasleen formaziorako, arrakasta handiz.

Azken urteetan ordea, kezkatuta gabiltza, lau urtean 14.000 eurotik 4.000 eurora jaitsi baitugu Eusko Jaurlaritzak Udako Topaketak antolatzekeko diru-laguntza.

Aurten 15 urte beteko dira topaketa horiek egiten hasi ginenetik eta arduratuta gaude. Posible al da 4.000 euroekin hezitzaileen beharrei erantzungo dien 20 ikastarotik gora antolatzea?

hizpide

Nafarroako Gobernuak ez du Sarrigurenen ikastetxe berririk egingo

Sarrigurengo (Eguesibar) ikastetxe publiko berria eraikitzea onartzeko Nafarroako Gobernuaren eta Eguesibarreko Udalaren arteko akordioa sinatzea solik falta zela, atzera egin du UPNren Gobernuak, eta ondorioz, ez da eskola berririk eraikiko. Uneotan 790 ikasle daude 675 ikaslerentzako ikastetxe batean. Datorren ikasturterako gainera, beste berrehun ikasle espero dituztenez, mila ikasle inguru egongo dira.

Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilariak dio oraingo ez dagoela beste eskola baten beharrik, ikastetxe berriak itxaron dezakeela 2015-2016 ikasturtera arte. Sarrigurengo herritarak harrituta daude eskola berrirako akordioak eginga zirudienean, bat-batean atzera egin duelako Gobernuak.

Joan den abuztuan Nafarroako Gobernuak Eguesibarreko Udalari esan zion arazoa ekonomikoa zela. Eguesibarreko Udalak dirua baduenez, tratatu bat eskaini zion gobernari: udalak dirua aurreratuko zuen 2014-2015 ikasturtean ikastetxe berria izateko, eta gobernua 2015-2016 ikasturtean itzuliko zion diru hori. Negoziazioetan bost hilabete pasatu ostean, azaro bukaeran akordio bat lortu zuten. Dena lotuta zuten, baina gobernua atzera egin du; momentuz beraz, ez da eskola berririk egingo.

Eskola garraioko eta jolastokiko begiraleak greban

Urtarrilean zehar bost greba egun egin eta akordiorik lortu ez zutenaz, urtarrilaren 27an greba mugagabea hasi zuten ikastetxe publikoetan neska-mutikoak autobusean eta jolastokian zaintzen aritzen diren begiraleak, ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk deituta. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 287 ikastetxetan izan du eragina grebak.

2008-2009 ikasturtetik blokeatuta dagoen lan-hitzarmena negoziatu nahi dute sindikatuak. Orduetik langileek soldata izoztuta daukate, eta orduko soldatetik hona % 6 inguruko igoera eskatzen dute langileek. Hala-ber, Espainiako lan erreformaren au-

rrean lan-hitzarmena “gotortzea” ere nahi dute.

Jantokietako begiraleek 2011n sinatu zuten lan-hitzarmena, eta antzeko akordioa ari dira eskatzen eskola garraioko eta jolastokietako begiraleak. Sindikatuak argudiatzen dutenez, urte urte Jaurlaritzak enpresei emandako dirua handitu egin da, baina horrek langileriarengan ez du batere eraginik izan.

Guraso asko eta asko haserre daude egoerarekin. Bizkaiko 137 eskolatan, Gipuzkoako 102tan eta Arabako 48tan izan du eragina grebak. 24.500 ikaslek baino gehiagok erabiltzen dute egunero autobusetako zerbitzua.

D ereduari buruzko ikerketarik ez dagoela dio Madrilgo Gobernuak

Nafarroako D ereduko irakasleen laurdenak “etazaleak” direla ondorioztatzen duen txostenaren inguruan galdetuta, Espainiako Gobernuak dio Nafarroako hezkuntzari buruzko txostenik ez duela egin Guardia Zibilak. Isilpeko txostena dela argudiatuta, behin eta berriro ezkutatu dute haren eduki zehatza, nahiz eta hedabide batzuei bidali dieten. Izan ere, Barne Ministerioaren esanetan, ikerketa ez da hezkuntzari buruzkoa, ETari buruzkoa baizik, eta ondorioz, isilpean jarrituko du.

Hainbat hedabidek joan den azaroan eman zuten ikerketaren berri. Haien arabera, D ereduko 28 ikastetxetan aritzen diren 1.652 irakasle ikertu zituzten eta lautik bat “etazalea” dela ondorioztatu zuten. Senideren bat preso dutenak eta LABeko afiliatuak jo dituzte “etazaletzat”.

UPN eta PPK neurriak hartu beharra zegoela ohartarazi zuten. Egun gutxitan, Barne, Justizia eta Hezkuntza ministerioekin elkartu ziren UPNko arduradunak, eta neurriak iragarri zituzten. Oraindik ez dituzte zehaztu.

izan da

Francesco Tonucci eskola txikietako irakasleekin



Gipuzkoako Eskola Txikien Elkartek Hezkuntza Sailaren laguntza-

rekin antolatuta, urtarrilaren 27an eta 28an, astelehen eta astearte arratsaldez, Francesco Tonucci pedagogo italiarra eskola txikietako irakasleekin elkartu zen, Euskal Herriko egoeratik abiatuta eta bere esperientzia pertsonalean oinarrituz, prestakuntza saioa emateko. Eskola txikien errealitatean oinarrituz, hainbat gai landu zituen, hala nola, heziketarako umeak duen eskubidea, jolasteko umeak duen eskubidea edota eskola konpentsatzailea.

Nahiko! Hezkidetzaren programaren materiala 25 zentrotara zabaldu du Emakundek

Jolasen bidez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan esperimentatzeko eta hausnartzeko helburuarekin, Nahiko! Hezkidetzaren programaren behin betiko materiala Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 25 ikastetxetara banatu du Emakundek. Ikasturte honetan eta hurrengoan, Lehen Hezkuntzako 2.170 ikaslek jasoko dute oinarritzako trebakuntza hori "pertsona osoak eta autonomoak izan daitezen".

2003an jarri zuen martxan Emakundek Nahiko! programa, 6 eta 12 urte bitarteko haurrekin parekidetasuna jorratzeko beharrezana identifikatu zuenean. Hamar urte horietan 90 zentrotako 4.000 ikasle baino gehiagorengana heldu da egitasmoa; epe

horretan material didaktikoa probatu ondoren, behin betiko baliabideak aurkeztu dituzte orain.

LHko hiru zikloen arabera antolatu dute materiala: ziklo bakoitzean sei unitate didaktiko daude, hiruhilabete bakoitza. Adin bakoitzean haurrekin dituzten kezka eta aurkikuntzetatik abiatuta ezarri dituzte gaiak eta edukiak, baina horiek jorratzeko jolasak eta antzeko dinamikak erabiliko dituzte.

Funtsean, hausnarketarako gune izan nahi du programak. Irakasleei eta ikasleei ez ezik, familiei ere zabaldu nahi diete gogoeta; beraz, gaia gurasoekin lantzea ere aurreikusi dute materialak diseinatzean.

Hezkuntzaren etorkizunari buruz hausnartzen



"Hezkuntzaren etorkizunari begira" goiburupean, ERKIDE Irakaskuntzak hezkuntzaren inguruko III. Kongresua egin zuen urtarrilaren 22an eta 23an Bilboko Euskalduna Jauregian. Euskal Herrian bertako hainbat esperientziaren berri emateaz gain, -hala nola, Ikaselkar, Nazaret zentroa, edota Lauaxeta ikastola-, kanpoko ekarpenentzat ere izan zen lekua; besteak beste, Nuria Sanchez Povedanok Bartzelonako Montserrat ikastetxeko paradigma aldaketaren berri eman zuen, eta Rafael Bisquerrak hezkuntza emozionalari buruzko hitzaldia eskaini zuen.

hizpide

Irakasleei zuzendutako zenbait ikastaro UEUn

“Google Earth eta Google Maps, zientzia-hezkuntzarako tresnak” izenburupean otsailaren 24tik 31ra bitartean ikastaroa eskainiko dute Borja Ruiz eta Joseba Doradok. Helburua, Google Earth eta Google Maps baliabide pedagogiko bihurtzea. Ikastaroa on-line emango da eta Youtubeko kanal bat bideratuko da bideotutorialak jarraitzeko, baina aurrez aurreko bisita ere egingo dira: bata otsailaren 24an eta bestea martxoaren 31n Eibarko Markeskua Jaurregian. Bestetik, martxoaren 10etik apirilaren 2ra bitartean “Gaur egungo munduaren historia 1945-2012 dokumentuetan” izeneko ikastaroa emango du Pedro Zuberogoiatiak. Bertan II. Mundu Gerraren ostean munduak izan duen bilakaera politiko eta ekonomikoa aztertuko da, azken sei hamarkadetako eragile nagusiek sortutako dokumentuetatik abiatuta.

‘Bizkaiko Ikasle Eztanda’ dinamika abian

Hezkuntza arloan jasaten ari diren “erasoen” aurrean protesta egiteko, Bizkaiko ikasle mugimenduak “Bizkaiko Ikasle Eztanda” abiarazi du. Grebara deitu du martxoaren 27rako eta Bilboko kaleetan orain arte izan den ikasle mobilizaziorik handiena egiteko deia zabaldu du.

Bizkaiko ikasle mugimenduak manifestu bat ere argitaratu du eta bertan gaur egungo hezkuntza-eredua salatzen du eta “herriatik herriarentzako” den hezkuntza aldarrikatzen. www.ikasleeztanda.net webgunea ere ireki dute eta Bizkaiko ikastetxe eta fakultateetako ikasle guztiei manifestuarekin bat egiteko deia helarazi die. Oraingoz babesa eman diotenen artean daude Ikasle Abertzaleak, Bilboko unibertsitateetako batzordeak eta hainbat herritako ikasle batzordeak.

IKASBIT irakaskuntzarako IKT zerbitzu berria

Elkarrek IKASBIT sortu du, irakaskuntzarako IKT zerbitzuak eskaintzen dituen proiektua. Hiru arlotan dihardu: Aholkularitzan, produktuan oinarritutako zerbitzuak eskaintzen (ataria, Intraneta eta irakasle koadernoak), eta trebakuntzan. IKTak irakaskuntzan giltzarri bilakatzen ari direnez, nola irakats-prozesuetan hala komunikazio-prozesuetan nahiz kudeaketan, Elkarrek zerbitzu hau eskaintzea erabaki du.

Hornitzaile eta bezeroen arteko erlazio eredu berri bat proposatzen du IKASBITek. Ez ditu plataformak saltzen, baizik eta horien gainean egiten den erabilera kobratzen du, uste baita balioa ez dagoela plataformetan, horien gainean eskaintzen den zerbitzuan baizik. Konfiantzan eta elkarlanean oinarritutako epe luzerako erlazioak sustatu nahi ditu IKASBITek, azpiegitura teknologikoen garapena eta mantenua bere gain hartuz. IKASBIT zerbitzua aurkeztu berri den arren, dagoeneko martxan da Euskal Herriko 28 ikastetxetan.

Aurrematrikula kanpaina martxan da Hego Euskal Herrian



Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban otsailaren 3tik 14ra egongo da zabalik Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikula egiteko epea. “Escola honetan batu eta biderkatu egiten dugu” lelopean hasi da kanpaina, eta aurrean lehen aldiz, aurrematrikula prozesu osoa Internet bidez egin ahal izango da, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net helbidean. Ez da beharrezkoa izango, beraz, eskatutako dokumentazioa hautatutako ikastetxera eramatea. Pauso hori *on-line* egin ahal izango da, eta dokumentuak eskaneatuta bidali. Nolanahi ere, dokumentuak aurkeztea nahiz izen-emate prozesu osoa ikastetxeetan egiteko aukera ere egongo da, ohi bezala.

Nafarroan, berriz, otsailaren amaieran irekiko da aurrematrikula egiteko epea.

izango da

Ipuinak, aniztasunaren balioak zabaltzeko

Pello Añorga ipuin-kontalariak, ipuinen bidez, aniztasunarekin loturiko balioak zabalduko ditu Gipuzkoako ikastetxeetan, Foru Aldundiko Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritzaren ekimenez. Añorgak 60 bat emanaldi eskainiko ditu aurtén, Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleentzat (8-10 urte) otsailean hasita; saioek ordubete iraungo dute, doakoak izango dira eta euskara hutsezkoak.

Ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako *Hodei baten bidaia* disko-liburua du abiapuntu. Disko-liburu horrek familiak aniztasunaz sentsibilizatzea du helburu, eta 50 pertsona inguruk hartu dute parte bere sorreran: Francis "Doctor De-seo", Asier Gozategi, Maria Rivero "Siroka", Natxo de Felipe "Oskorri", Xabier Solano eta DZ "Esne Beltza"... Foru Aldundia ikastetxeetan, liburutegietan eta beste hainbat tokitan ari

da banatzen *Hodei baten bidaia*. Arduradunen esanetan, Durangoko Liburu eta Disko Azokan ere oso harre-ra ona izan zuen, eta datozen asteetan jendartearen zabaltzeko are ahalegin handiagoa egingo du Aldundiak.

Marcos Nanclares Migrazio eta Aniztasun zuzendariaren hitzetan, ipuinen bidez aniztasuna lantzeko ekimen hau oso garrantzitsua da, Euskal Herriko aniztasuna modu erakargarrian erakusteko balio baitu. Duela hilabete pare bat disko-liburua argitaratu zuten, eta orain, Pello Añorgaren ikuskizunarekin datoz. Nanclaresek azaldu bezala, bi egitasmoak osagarriak dira, eta helburu bera dute: haurrak eta familiak aniztasunaz sentsibilizatzea. "Izan ere, aniztasunaren kultura berria sortu behar dugu, elkarren aitortzan oinarritua eta herri honetan bizi garen pertsona guztiak barnebiltzen dituen".



Disko-liburua abiapuntu hartuta, Pello Añorgak aniztasuna lantzeko istorioa sortu du. Ipuin-kontalariak azaldu duenez, intimitatetik eta isiltasunetik abiatutako kontaketa da. "Kohesioa bilatzen jakin behar dugu aniztasunean, jatorri anitzekoak garen gero; bizikidetzaren praktika dezagun asimilazioan erori gabe, jarrera paternalistetatik urrun. Desberdina izateak ez du zertan izan oztopo, abagune baizik. Nori erabakitzen du forma bat hemengo dela eta bestea kanpokoa? Zergatik mespretxatzen dugu ezagutzen ez duguna, juzku lasaieran eta esteriotipatu zurietan babesturik? Nola esperimenta dezakegu bestea ere badela nire biziaren parte? Nola sor dezakegu zerbait berria elkarrekin?"

Pello Añorgak ia 30 urteko ibilbidea du ipuin-kontalaritzan. Ipuin tailerrak irakasleei eta gurasoei ematen ere tratatua da, eta Mondragon Unibertsitatean ere egin ditu saioak. Idazle ere bada: 40tik gora liburu ditu argitaratuak eta 2008an Euskadiko Haur Literatur Saria jaso zuen.

Ikuskizuna jaso nahi duten ikastetxeek Foru Aldundiaren 943 112290 telefono zenbakira deitu behar dute.



GAIA

Eskola alternatiboak

Injerentziarik gabeko hezkuntzaren bila





Haurren eskolatzearen inguruko kezka handitzen ari da Euskal Herriko familien artean eta gero eta gehiago dira ohiko hezkuntza-sistematik kanpo dauden zentroen aldeko hautua egiten dutenak. Eskola libre edo demokratiko gisa izendatzen dute askok euren burua, funtsa askatasuna baita. Eskola alternatibo ere deitzen zaie, azken batean, indarrean dagoen hezkuntza-sistematik kanpo daudelako. Euskal Herrian gero eta gehiago badira ere mota horretako eskolak, gehienak legez kanpo eta erdi-erdi-erdi ari dira lanean. Guztietan darabilten pedagogia zein metodologia berberak ez diren arren, hausnarketarako balio dezaketen zenbait kritika egiten dizkiote ohiko hezkuntza-sistemari eta aintzat hartzeko moduko bestelako hainbat balio aldarrikatzen dituzte.

G

Ohiko hezkuntza-sistematik kanpoko zentroak ugaritzen ari dira

Historiako momentu guztietan eta gizarte orotan existitu da hezkuntza, baina horren kontzientziarik izan gabe. Berez gertatzen zen, eskolaren eta pedagogiaren beharrik gabe. Hezkuntza-sistema, gaur egun eza-gutzen denaren antzeko, XVIII. mende amaieraren eta XIX. mende hasieraren artean hasi zen egituratzen. Gehienez estatuetatik bultzatuta, modu sistematizatuagoan eta planifikatuagoan hasi ziren antolatzen hezkuntza-jarduera. Harrezkero eskolaren egiteko nagusia haurrak gizarteratzea izan da eta hezkuntza eskubide unibertsal bilakatu da.

Kanpotik barrura edota goitik behera egituratua dela argudiatuta, zenbait guraso eta hezitzaileen aburuz, ohiko hezkuntza-sistemak ez ditu haurren erritmoak nahiz beharrak errespetatzen, eta ondorioz, umeak ikasteko duen berezko grina akabatzen duela diote. Euren seme-alabentzat beste era bateko eskolatzeari desio dute. Horrexegatik, ohiko hezkuntza-sistemari alternatiba eskainiko dioten eskolak ari dira sortzen han eta hemen.

Eskola alternatiboek 60ko hamarraldian sekulako arrakasta izan zuten Europan eta Ameriketan. Ondorengo urteetan apur bat baretu egin zen olde hori, baina azken urteetan ere hazten ari da hezkuntza alternatiboaren aldeko hautua egiten duten familien kopurua. Horren adibide dira Euskal Herrian dauden hainbat eskola, hala nola, Lea-Artibain dagoen Kortziñe (Bizkaia), Iruñeko Tximeleta (Nafarroa) edota Behauzeko Bizi Toki (Baxe Nafarroa). Denera, ordea, 20tik gora dira. Batzuek proiektua soilik egin dute oraindik, beste batzuk hastapenetan daude, eta zenbait urteetako esperientzia dute. Bista-

koa da egunetik egunera gero eta eskola alternatibo gehiago ari direla sortzen Euskal Herrian, eskaria handituz doa eta horietako batzuetan jendea kanpoan uzten ari dira.

Ane Ablanedo Bigarren Hezkuntzako eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea izateaz gain, haur prebentzioan aditua da eta UEUK antolatuta, "Eskola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako" izeneko ikastaroa eman du. Helduen klinika aztertzen hasi zenean, nahitaez jo behar izan zuen haurtzarora pertsona ez-gaixoak nola hazi aztertzeko eta hor zuzenean egin zuen topo eskolarekin. Bere esanetan, orain indarrean dagoen eskola "ez da osasungarria haurrarentzat, ez da umeak behar duten tokia". Ohiko eskolaratze-ereduaren gabeziak ikusita, hezkuntza-sistema alternatiboak ikertzen hasi zen eta *eskola libre* deritzotenekin egin zuen topo.

Eskola bat librea eta demokratikoa izan dadin eduki beharreko gakoak ikertu ditu irakasleak. Argi du eskola alternatibo guztiek ez dutela zertan onak izan, baina Euskal Herrian zenbait eredu gomendagarri behatu ditu eta baita hezkuntza-sistema barneko hainbat eredurekin alderatu ere. Alde batean zein bestean, bieran aurkitu ditu funtzionamendu osasuntsua izan dezaketen eskolak: "Eskola alternatibo onak daude, baina hezkuntza arautuaren barruan ere badaude adibide eredugarriak, zenbait eskola txiki adibidez. Oso kontuan izan beharko genituzke hasierako ikastolak ere. Gainera, gaur egun haur zein hezitzaile gehienak sistema barruan daude eta horiek ere zaindu behar ditugu. Ezin dugu pentsatu sistematik kanpo dena oso ona denik eta barruko guztia oso txarra, baizik

Eskola alternatiboak

eta hezkuntza libre eta demokratiko baterako gakoak zeintzuk diren ulertu behar dugu eta gauden tokian gaudela aurrera egin”.

Eskola librearen funtzionamendu eta metodologiaren oinarrian hainbat pedagogia eta eredu daude, hala nola Alexander Neill eta Summerhill eskola, Montessori metodoa, Rebeca eta Mauricio Wild-en hezkuntza aktiboak nahiz Pestalozzi eskola, Freinet, Freire edota Illich-en teoriak, Paideia eskola, etab. Edonola ere, Ablanedoren iritziz, garrantzitsuena ez da zein pedagogia erabiltzen den, haurra ez baita gauza bat edo beste ikastera derrigortu behar, baizik eta hezitzaileek nola jokatzaren duten haurrari ikasteko giro, espazio nahiz material egokiak eskaintzeko eta behar ez den interbentzio edo injerentziarik ez egiteko: “Ez dago zertan pedagogia bat hartu eta ehuneko ehun jarraitu, baizik eta bakoitzaren inguruna eta egoerara, hau da, norbera den horretara egokitu behar da pedagogia batek zein bestek diotena”. Pedagogiak aplikatzeko daude, baina irakaslearen aburuz, eskola librearen kasuan badaude kontuan izan beharreko aurreragoko hainbat printzipio: hezitzailearen jokatzea ez zuzentzailea izatea, umeari bere kasa ikasten eta bere bidea egiten uztea, haurrari bizitzara benetan zertarako etorria den aurkitzen laguntzea, zein dohain dituen eta zer gustatzen zaion jakin dezan baliabideak eskaintzea, eta elkarbizitzan trebatzea umeen arteko antolamendua eta harremanen bidez.

Printzipio horiei jarraitu nahi zirelako erabaki zuten Miren Camisonen, bi umeren amak eta haur filosofoak irakasleak, eta haren bikoteki-

deak euren haurrak eskola libre batera bidaltzea. Haurdunalditik hasi ziren hazieraren eta hezieraren inguruan ikertzen eta eskola arruntak euren nahiak ez zituela asetzen ohartu ziren.

Camisonen hitzetan, eskola libre-ek ohiko eskolarekin alderatuta duten abantaila nagusia pertsonaren bizitza prozesuak errespetatzea da, eta Rebeca eta Mauricio Wild-en hezkuntza aktiboaren filosofia dakar gogora. Autore horiek haurrak eta beraien prozesuak giza eboluzioarekin eta bizitzarekin lotuta ulertzen dituzte, eta beraz, eskolak pertsonen beharrei ematen dizkien erantzunek beste modu batekoak izan behar dutela uste dute. “Askotan komentatzen da eskola arruntetan haurrak berez duen jakin-mina galduz doala, baita irizpide kritikoa ere, eskola alternatiboen helburua da hori guztia mantentzea, prozesuak blokeatu gabe. Baina autodidakta izateko ekintzaile izan behar da. Hezkuntza aktiboak esan nahi du haurrek eurek erabakiko dutela eskolan zer egin. Eta horrekin estuki lotuta dago autodiziplina. Gaur egun pedagogia askok esaten dute haurrari ez zaiola erakutsi behar, baizik eta berak ikasi behar duela. Eta hori bizitzari zentzua aurkitzearekin dago lotua. Norberak deskubritu behar du nolakoa den mundua eta nolako erlazioak gertatzen diren hor. Sarri eskola arruntan errealitatea zatikatuta irakasten da, irakasgai bakoitza bere aldetik lantzen da. Ulermena zatikatzen denean, azkenean haurra egiten ari den horrek zentzua galtzen du, zeren gu izaki globalak gara eta globaltasun horretara ulertzen dugu inguruena eta errealitatea”.

Hezkuntza librerako gakoak

Eskola libre deiturikoen erdigunean haurra jartzen dute. Helburu nagusia da haurrak autonomia eta iniziatiba izatea, jakin-min edo curiositate naturala mantentzea, pertsona libreak, autodidaktak eta sortzaileak lortzea, eta horri loturik baita autodiziplina bultzatzea ere. Dotore geratu ohi dira helburuak bata bestearen atzetik jarrita. Alde nabarmenik ere ez da ikusten gainera, eskola alternatiboek nahiz ohiko hezkuntza-sistemak izan ditzaketan helburuekin. Baina paperean idazten den horretatik benetan eskola-praktikan egiten den horretara jauzi nabarmena egon ohi da. Xede horiek lortzeko ordea, nola jokatu? Zer egin? Nola antolatu espazioa? Zein material erabili? Hezitzaileek zein rol hartu? Giro egokia nola lortu? Hezkuntza libre eta demokratikoen inguruko hainbat klabe ematen dituzte Camisonen eta Ablanedok, eskola alternatibo nahiz arruntei baliagarri izan dakizkiekeenak.

Prozesu biologiko-ebolutiboak errespetatzea: haurrak bere kabuz ikas dezan beharrezkoa da prozesu biologikoari arreta jarri eta haurraren prozesu psiko-sozio-biologiko orokorrak eta bere behar pertsonalak zeintzuk diren ikertu eta horiek errespetatzea. Camisonen, Wildtarrei jarraiki azaldutako teoriak, natura prozesuak hartzen ditu kontuan gizakiaren eboluzioa ulertzeko. Bere esanetan, gizakiaren ebo-



Ane Ablanedo, haur prebentzioan aditua eta irakaslea.

luzioa lehenengo zelulatik abiatzen da. Sortzen den lehenengo zelula ingurune batean dago, natura ingurune batean. Elikatzeko ingurune horretako elementuak behar ditu, baina ez edozein elementu, garapenerako behar duena soilik. Zelula horrek mintz bat du eta mintz horrek erregulatu egiten du zelula horrek zer behar duen eta zer ez, eta baldin eta mintz hori osasuntsu badago, zelulak behar ez dituen elementuei ez die uzten sartzten.

Teoria horren arabera, pertsona zelula-anitzeko izakia da eta natura legeen barnean dago nahiz eta berezkoak dituen beste ezaugarri batzuk ere badituen. Erreferentzia puntu hori ardatz hartuta hainbat galdera planteatzen ditu Camisonek: “Zeintzuk dira bizirik dagoen organismo horren ezaugarriak eta beharrak bizitza-prozesuko etapa bakoitzean? Eta bereziki jaiotzen garenetik nerabezaroa bukatu arte? Etapa horretan finkatzen baita gure izaera-egitura izaki gisa. Eta zer gertatuko da behar horiek errespetatzen ez badira? Adibidez, haurtxo bat libre mugitu dadin errespetatu behar da, baina zer gertatzen da



Miren Camison, Haur Filosofiako irakaslea.

hori baimentzen ez diogunean?” Eta hainbat adibide jartzen ditu: “Esaterako, haurtxoak besoetatik ‘zintzilik’ eramaten ditugunean ibiltzen ikas dezaten, artean inoren laguntzarik gabe, euren kabuz bakar-bakarrik ibiltzeko gai ez direnean, injerentzia bat egiten ari gara. Izan ere, haurtxoaren organismoa oraindik ez dago prest funtzio hori bere kabuz eta laguntzarik gabe betetzeko. Zer eragin izango du horrek bere organismoan (giharretan, tonuan, nerbio sisteman, gorputz orekan, burmuinean, emozioetan, eraikitzen dituen harremetan...)?”.

Irakasleak dioenez, eskolak haurraren prozesuak kontuan hartzen ez baditu eta bertako inguruneak haurrari haren etapa ebolutiboarekin bat ez datozen hainbat gauza inposatzen badizkio, injerentzia bat gertatzen da eta horrek haurraren garapenean eragin kaltegarria izan dezake. “Adibidez, 13-14 urtetik aurrera pertsona bat nahiko heldua dago, gutxi-asko, eragiketa abstraktuekin hasteko, baina ez lehenago. Eta etapa horren aurretik egiten bada, organismoa bortxatzen ari gara. Eta ulermena ordezka-

tzen duen memorizazio-prozesu mekanikoa martxan jarriko da umearengan”. Kritika hori egiten dio Camisonek eskola arruntari.

Curriculumaren gainetik haurraren barne grina: curriculum eta bertan zehazten diren edukiak askotan haurraren ikasketa prozesua oztopa dezaketela diote Camisonek nahiz Ablanedok, curriculumaren bidez goitik behera esaten baita norbakoak zein eduki zehatz ikasi behar dituen. “Denok ikasten ditugu gauza berberak momentu berberetan eta horrek ez du inolako logikarik”, dio Ablanedok, eta zera gaineratzen du Camisonek: “Haurrak berak aukeratu du zerbait zehatza ikertzea bere beharra hori delako eta bere bizi esperientziak hala eskatzen diolako edota norbaitek inposatu dio?”. Irakasle bien hitzetan, eskola libreetan haurrak berak aukeratu beharko luke zein ikerketa lerro jorratu nahi duen, normalki, ingurunean duenetik eta aurreko esperientziatik abiatuta.

Ikaste prozesuak baimentzea: eskola libreen printzipioa da umeak berezkoa duela ikasteko grina, eta hortaz, ez zaiola zertan ezer irakatsi. Camisonek esplikatzen duen eran, haurra bere ekimenez ikasten doa: “Ikasketa mota horrek balio handiago du, benetan gure bizitzan zentzua duena ikasten baitugu”. Piagetek dio ulertzea asmatzea dela, norberak sortzen duela ulermena eta inork ezin duela norbere ordeztatu. Ideia hori bera konstruktibismoak ere jasotzen du, ikaslea dela bere ikasketa prozesuaren subjek-

tua dioenean. Hortaz, hezkuntza-sistema alternatiboen arabera, eskolak bideak jarri behar dizkio ikasleari bere ikaste prozesuak aurrera eraman ditzan eta ez besterik.

Metodologia ez zuzentzailea: eskola libreetako pedagogia ez da gidatzaileria izango, ez ditu haurren prozesuak zuzenduko, baizik eta espazio, giro eta material egokiak prestatzen saiatuko da. Hiru zutabe nagusi horiek izan ohi dira kontuan eskola alternatiboetan eta ez da irakasgaririk izaten. Eskola libreak barneko zein kanpoko espazioak sortzen ahalegintzen dira, eta Camisonek azaldutako moduan, kanpoko barneko bezain garrantzitsua izan ohi da. Kanpoaldean ahalik eta ingurune zabalena edukitzea litzateke egokiena, baita mugimendurako espazioak ere: natura-espazio zabalak; zuhaitzekin, egurrekin, harriekin, lurrarekin jolasteko lekuak; kulunkatzeko eta igotzeko egiturak; tirolinak eta salto egiteko ohe elastikoak; etab.

Horiekin batera eskola libre gehienetan egon ohi dira hondartegi handi bat eta urarekin jolasteko toki bat. “Urarekin eta hondarrarekin jolastea oso garrantzitsua da, material ez-egituratuak direlako. Kanpoaldean gaitasun fisiko eta emozionalak, zentzumenak eta gauzak eraikitze gaitasuna lantzen dira, bestak beste. Era berean, komenigarria litzateke jolas sinboliko guztia ere barruan eta kanpoan egin ahal izatea. Wild-tarrek argi dute haurrak urarekin, lurrarekin, makilekin nahi ahala jolastu behar duela, gero matematikak ondo

ulertu ahal izateko, naturarekin eta animaliekin harremanak izatea ezinbestekoa dela bizitzan bestelako konexioak eta loturak egin ahal izateko, gero konexio horiek izango baitira eragiketa abstraktuagoak ulertzeko oinarria”. Barrualdean berriz, beste hainbat espazio egongo dira: mugimendurako espazioa, jokosinbolikorako espazioa, arterako espazioa, sukaldia eta jangela, aroztegia, material egituratu eta ez egituratuaren espazioa, etab.

Antolaketari dagokionez, kontuan izan beharreko bi irizpide aipatzen ditu Camisonek: batetik, giro prestatua, eta bestetik, giro lasaia. Helduen egitekoa izango da bi irizpide horiek bermatzea. “Beraz, espazio bakoitzean heldu bat egongo da giro lasaia ziurtatzeko, gainontzean ezinezkoa izango baita beste jarduera guztia behar bezala gertatzea. Ezin da alor kognitiboa ongi garatu pertsona bat alerta badago”. Giro prestatuak berriz, materialarekin du zerikusia. Camisonek adierazi bezala, material asko egin behar da barrualdeko aretoetan haurrak bere kasa irakasgai guztiak landu ditzan: matematika, hizkuntzak, plastika, musika... “Baina giro prestatuarena haratago doa. Horrek esan nahi du umeak zein prozesu bizitzen ari diren behatzen ari garela eta haien zein behar dituzten adi gaudela. Giro prestatua zerbait dinamikoa izango da, haurren beharrak eta interesak ere denbora guztian aldatzen baitoaz. Gainera, urtero eskoletan ume berriak sartzen dira eta uneoro bertan dauden haurren arabera antolatu behar da guztia. Horregatik, helduak umeari oso adi egon

behar du, zentzumen guztiak oso irekita”. Alderdi horri loturik, eskoletako ratioak ere garrantzia handia hartzen du, ezinezkoa baita giro prestatuaren eta lasaiaren irizpide bikoitz hori bermatzea, eskolan heldu gutxi badaude edota espazioak txikiak badaude: “Ume asko badaude, heldu asko behar dira eta espazio oso handiak”.

Arauk haurrek eurek eginak: eskola libreetan haurrak sartzen direnean helduek ezarritako hainbat muga izan ohi dituzte, elkarbizitza arauak, hain zuzen. Behin eskolan hasten direnean, ordea, eta batez ere Lehen Hezkuntzatik aurrera, haurrek ere parte hartzen dute ezarrita dauden muga horiek berreraikitzen eta arau berriak egiten. “Goitik ezarritako arauak ez dute balio, baizik eta haurrek eurek probatu, esperimendu eta ikusi behar dute zerk balio duen eta zerk ez, eta horren inguruko gogoeta egin”. Zenbait eskolatan asanbladak egiten dituzte mugak ezarri eta elkarbizitza araudia zehazteko.

Helduaren rola, haurrekin egotea: eskola alternatiboetan helduaren egitekoa haurren alboan egotea behar luke izan, haurra akonpainatzea. Heldua izango da bestalde, haurrentzat giro egokia bermatuko duena ere, elkarbizitza arauak ziurtatuz, errespetuzko eta lasaitasuneko giroa sortuz eta haurrek dituzten beharrak uneoro akonpainatuz. Camisonek zehaztutako eran, heldua denbora guztian haurren prozesuak behatzen ariko da eta beharrezkoa denean soilik hartuko du

Eskola alternatiboak

Injerentziarik gabeko hezkuntzaren bila



kontuan eduki gabe aritzea, baizik eta barruan daramatena ateratzen laguntzea, uztea eta behar horietan akonpainatzea modu pertsonalizatu batean. Askatasunaz ari gara, baina askatasuna mugen artean ulertuz, noski. Horretarako daude elkarbizitza arauak eta funtzionamendua berrikusteko bilerak haur eta helduen artean, elkarbizitzaren mugak, arduraren eta konpromezuen mugariak, etab. Askatasuna ez dugu nahastu behar libertinajearekin, ezta egozentrismoarekin ere. Askatasuna da testuinguruak ematen dizkigun aukerak probestea norbere nahiak, beharrak edota interesak asebetzeko, modu arduratsu eta sortzaile batean”.

Autonomia, izaera autodidakta, autodiziplina: haurraren barrutik kanporako jarrera erakusten duten hiru kontzeptu dira horiek, Camisonen esanetan; hau da, haurrak naturalki ikertu, sortu eta deskubrituko du eta naturalki egingo ditu hainbat ekin-tza, ez kanpotik esan diotelako. Eta haurra autodidakta izango da, baldin eta autonomian hezten bada.

Horrekin lotuta dago beste kontzeptu bat ere: autodiziplina. “Helduak ez dio hurrari esango zertan jolastu behar den edo zer egin behar duen, hori haurraren beraren erabakia izango da. Jolas horretan aritzeak, ordea, diziplina eskatzen dio. Baina diziplina norbere barnetik aterea denean, gauza berbera dira diziplina eta pasioa. Wild-tarrek oso polit esaten dute: ‘jolasa eta lana gauza bera da’. Batzutan kontrakoa iruditzen bazai-gu ere, jolasik edota jarduerarik txiki-narekin ere lan handia ari da egi-ten haurra”.

esku, hau da, umeek eskatzen diotenean, ekintza zehatzetan (ipuinak kontatuz, tailerrak antolatuz edo emanez...) edo konfliktuak daudenean, errespetuzko giroa bermatuz.

Baina mugak ongi jarriak daudenean eta taldeak muga horiek onartuta dituztenean, esku-hartzea oso txikia izan ohi da. “Ohiko beste galdera bat izan ohi da helduek ez ote duten ezer-ezer irakasten. Haur bat material bate-tara gerturatzen bada eta horrekin nola jolasten den galdetzen badu, helduak deskripzio bat egingo dio azalduz material hori berak nola erabiltzen duen, gero haurrak nahi badu modu horretan jolas dezan edo beste erabilera bat eman diezaion. Hala, haurrak handitzen doazen heinean, euren ardurak hartuko dituzte intereseko proiektuak aurrera ateratzeko, eta sortzen diren tailerretan modu askean parte hartzeko”.

Umeak berak erabakitzen du zer egin: eskola libreetan umeak erabakitzen

du zer egin nahi duen momentu bakoitzean, “ekintza haurraren barrutik kanpora dator, eta ez alderantziz”. Camisonek dio ez dela horren erraza batek ikasi eta egin nahi duena aukeratzea: “Nola antolatuko dut nik eskolan nagoen denbora hori guztia? Bakarrik edo norbaitekin? Zein dinamika sortuko ditut? Eskola hauetan inork ez dizu esaten zer ikasi behar duzun, ezta bakarrik, besteren batekin edota gehiagorekin antolatuko zaren ere hori egiteko”.

Eskola libreei askotan leporatzen zaie hurrei nahi dutena egiten uzten dietela, baina nola ulertzen da ‘nahi dutena’ egitea? Hezkuntza alternatiboaren testuinguruan ondokoa esan nahi du Camisonen hitzetan: “Eurek aukeratzen duten ekintza hezitzaileari ekitea inork esan gabe zer ikertu behar duen. Horretarako prestatuta egongo da eskola eta bertako helduak. Nahi dutena egiteak ez du esan nahi beste pertsonak edo gauzak

Etorkizuna ezbaian

Eskola libreei irla batean bizitzea egotzen zaie maiz, eta haurrak errealitatetik kanpo heztea, bizitza, benetan, beste era batekoa delako. Eta haur horiek gero sistema arruntean egokitzeo zailtasunak izango dituztela esan ohi da. Baina Ablanedok azaldutako moduan, guztiz kontrako gertatzen da, haur horiek oso ongi antzematen baitute zein diren leku bakoitzeko arauak: “Probatuta dago eskola horietan ibili diren haurrak sistema arrunteko eskoletan sartu direnean oso ondo moldatu direla. Izan ere, euren heziketan sistemak ez die kalterik eragin, ingurunea ez da euren maltzurra izan. Badakite toki batean ezin dutela egin bestean egin zeza ketena, eta kito. Ez daukate, adibidez, institutura iristen direnean ume batzuek izan ohi duten erreaktibotasuna”.

Hezkuntza librearen bitartez haurren zenbait gaitasun bereziki lantzen direla diote adituek, hala nola, erlazioetarako edota egoera berrietara egokitzeo gaitasuna, baita erabakitzeo eta zer nahi duten jakiteo ahalmena ere: “Guri gertatu izan zaigu institutuan ikasleei nahi dutena egiteko eskatzea egun batez, eta haiek ez jakitea zer egin, ez baitaude horretan ohi-tuta. Hori saihesten ahalegindu behar dugu”.

Aitzitik, Ablanedoren ustez, eskola libreek badute gabezia bat, une batean ezaugarri ona dena hurrengo batean txar bilaka baitaiteke. Haur batek ez ditu haur asko behar inguruan, baina nerabezaroan taldea oso inportan-

tea da. “Igual horrelako eskola batean egotea motz gera dakioko nerabe bati. Horrexegatik, batzuetan ikasleek eurek eskatzen dute beste eskola batera joan nahi dutela, eta gehienez Bigarren Hezkuntza egitera ohiko sistemaren barneko ikastetxeren batera joaten dira”.

Eskola alternatibo batzuek esperientzia luzea dute eta emaitza probatuak. Beste eskola batzuen ibilbidea oraindik ezagutzeko dago, izan ere proiektuan garatzen ari dira edo has-tapenetan daude: “Ematen du batzuetan horrelako eskolek badutela halako xarma erromantiko bat, baina alternatiboa izateagatik ez du zertan ona izan”. Badira sortu eta urte batzuren buruan, zailtasunak tarteko, jarduna eteten duten zentroak ere.

Horrez gain, eskola alternatibo gehienak ez dira legalak eta egoera nahiko prekarioetan dira lanean. Izan ere, diru-laguntzarik jasotzen ez dutenez, beharrezko diru guztia gurasoek jartzen dute. Baina kuotak al-tuegiak izatea ere eragozpena da familia zenbaitentzat, ondorioz, maiz bertako hezitzaileak egoera nahiko kaskarretan lan egiten dute. Eta zentroak ere, normalki autogestionatuak izaten dira. Oro har, horretaz gurasoak arduratzen dira, baita beharrezko materialak inguratzeaz eta mantenuaz ere. Hezitzaileen lana ildo pedagogikoari dagokiona izan ohi da. Baina erdi-ezkutuan aritu behar horrek zailtasun eta neke ugari eragiten dizkie guraso nahiz hezitzaileei, “ez baita erraza beti borrokan aritzea”.

Sistemaren barnean aldaketa posible da?

Eskola libreen edo alternatiboen gakoak ezin dira aplikatu hezkuntza-sistema arautuan? Haur eta irakasle gehienak sistema horretan dabiltzala kontuan izanik edonori burura dakiokkeen galdera da. Ablanedok argi dio: “Zaila da, baina urratsak egin daitezke”. Hainbat gako garrantzitsu hezitzailearen eta ikaslearen arteko harremanean egon daitezkeela dio, heziketa bi pertsonen arteko erlazioan gertatzen den zerbait baita. “Erlazio hori kalitatezkoa bada, ezkutuko botererik edo autoritarismo kamufaturik ez badago eta helduak umearekiko duen begirada aldatzen badu, asko da”. Zentzu horretan hezitzaileak bere buruari begiratzen jakiteak ere sekulako garrantzia duela uste du irakasleak: “Niretzat zer da bizitza? Zer gizatasuna? Eta zer heziketa? Galdera horiek erantzuten saiatuz egoera asko alda daiteke. Erlatibizatzen jakitea ere oso garrantzitsua da, programari beldurra kentzea eta dena eman beharrik ere ez dagoela barneratzea. Egia da selektibitatea hor dagoela,





Kasu erreal bat, Tximeleta

baina hori azken bi urteetan da garrantzitsuena, aurreko mailetan ez horrenbeste. Irakasleok jarrera aldatu behar dugu eta pentsatu guk irakatsiko diogun horrek ez diola haurrari ezertarako balio, zeren benetan balio baldin badio berak ikasiko du. Zu zaren horri garrantzia kenduz, jarrera aldatuz, egoera alda daiteke”.

Hezitzaile on batez hitz egiterakoan kontuan hartu behar da bakoitzaren garapen pertsonala Ablanedoren iritziz, hau da, zer gaitasun duen bere barnera begiratzeko eta antzemateko umearikiko harremanean zer den berea eta zer umearena. “Hezitzaile on batek asko begiratu behar dio bere buruari. Gu sistema bateko ume gara eta heziketarekin zerikusia duela esan diguten hori guztia oso txertatuta dugu gure barnean. Ikasitako hori desikasten hastea litzateke lehen egitekoa”.

Camison, bestalde, sinetsita dago sistema arruntean ere aldaketak egin daitezkeela: “Gauzak asko aldatu behar dira. Eta jendearen burua eta bihotza ere bai. Mundu ikuskera osoa. Paradigma aldaketa behar da. Hezkuntza librerako paradigma aldaketa hori ezin da bi egunetan egin, baina krisi momentuak oso politak izan daitezke horretarako”.

Tximeleta eskolak 11 urte ditu eta Iruñean dago uneotan. Euskal Herrian urterik gehieneko esperientzia duen eskola libreetako bat da. Mikel Gonzalez maisuak sortu zuen Summerhill-eko ereduaren gaineko interresetik abiatuta. Bi urteko ume bat zuen eta harentzat bestelako hezkuntza-eredu baten bila hasi zelarik, berak eskola bat sortzea erabaki zuen. Taxoaren, Iruñea ondoko herri batean, ireki zuen Tximeleta bost ume ingururekin. Gero Iruñeko Alde Zaharrean bi urtez eta ondoren Etxarrin egon ostean, Iruñean da atzera ere. Il-do reichiarra jarraituz abiatu ziren hasiera hartan, geroztik egoeraren arabera moldatuz eta pedagogia batetik eta bestetik edanaz joan dira. Eragina izan du Rebeca eta Mauricio Wild-en filosofiak eta Pestalozzi eskolaren ereduak, baita Frantziako La Neuville, edota Montessori, Freinet, Manuel Castro eta antzeko pedagogoen. Gakoa, ordea, pedagogia horiek guztiak Tximeletaren beraren egoerara egokitzean dagoela uste dute arduradunek. Uneotan EUDEC Europako Eskola Demokratikoen sarean sartuta dago zentroa beste 12 herrialdeetako 34 eskolarekin batera.

Hastapenetan bi langilerekin hasi ziren eta gurasoek ere arlo pedagogikoan parte hartzen zuten. Urtez urte, ordea, handituz joan zen hasierako eskola txiki hura, eta pixkanaka, alderdi pedagogikoa hezitzaileen esku geratu da. Gurasoek eskolan parte hartzen dute tailerrak ematen, hurrekin batera zenbait ekintza antola-

tzen, eskolan behar den materiala inguratzen, diru-kontuak eramaten, ikastaroak antolatzen edota bestelako gestioan. Giro polita sortu dute haur, guraso eta hezitzaileen artean eta gutxika ospea ere erdietsi du Tximeletak. Geroz eta guraso gehiago daude interesatuta eskola libreen ereduaren eta aurten hainbat familia kanpoan utzi behar izan dituzte ratio kontuak tarteko. Uneotan 3 eta 12 urte arteko 38 haur daude bertan eta lau irakasle eta erdi.

3 urterekin hasten dira haurrak Tximeleta eskolan eta 12 urte ingurura arte egoten dira bertan, hau da, sistema arautuan Bigarren Hezkuntzan hasten diren arte. Egokitzapenari garrantzia handia ematen diote eta denbora asko eskaintzen. Umeekin batera, gurasoak ere eskolara joaten dira eta haurrek behar duten arte egoten dira han. Hezitzailearen eta haurraren arteko harremana segun eta nola ari den sendotzen, denbora gehiago edo gutxiago egoten dira gurasoak bertan.

Tximeleta eskola etxe handi bat da, kanpoko nahiz barneko espazioak ongi zainduta dituena. Kanpoaldean zuhaitzak, belardia, harriak, ezkutalekuak, makilak etab. ditu; barruan berriz, zurgindegia, plastika gela, psikomotrizitate gela, musika gela, jangela, sukaldea, komunak, etab. Bi espazio nagusi ere badaude: bat 6 urte arteko haurrentzat eta bestea 6 urtetik gorakoentzat, baina banaketa hori orientagarria da soilik, ez baita bere horretan mantentzen. Umeak nahi

Eskola alternatiboak

duten eran, toki batetik bestera pasa daitezke, ahal den heinean, heldu bat aldamenen dutela.

Santi Gonzalezek 3, 6 eta 8 urteko hiru alaba ditu Tximeleta eskolan. Suhiltzailea da izatez, baina lau urtez Tximeletako hezitzaile lanetan ere aritu zen. Hezkuntza arautuko eskolatan gustatzen ez zizaion zerbait ikusten zuelako erabaki zuen haurrak eskola alternatibo batean eskolatzea: “Umearen beraren erritmoa errespetatzen zedin nahi genuen, ez umeari kanpotik bestelako erritmo bat inposatzea. Umearen beraren autonomia eta berezko ikasteko gustua ere bermatu nahi genituen. Sistema arruntan guztia oso zehaztuta dago, kanpotik ezarria eta umeek ez dute ardurarik euren ikasteko prozesuan”. Bada gainera, beste alderdi bat oso garrantzitsua iruditzen zaiona. Izan ere, Tximeletan heziketa modu orokorrean ulertzen da, hau da, gizakiaren arlo guztiei ematen zaie garrantzia, ez soilik kontzeptuak ikasteari, baita alderdi emozional eta afektiboari ere: “Alor hori ondo aseta izatea garrantzitsua da gero beste alderdiak, kognitiboa adibidez, behar den bezala gara daitezten”.

Eskolaren mantenua nahiz bertako araudia haurren esku

Eskola arruntetan ez bezala, Tximeletan eskolaren mantenua haurrek eurek egiten dute: materialak jasotzea, eskobatu, komonak garbitu... Zonalde bakoitzeko arduradunak izendatzen dira eta euren egitekoa izan ohi da eremu hura txukun eta garbi mantentzea. Era berean, sukaldian ere betebeharrak zehazten dituzte eta arduradunak izendatzen. Tokatzen zaienean haur-

rek eurek prestatzen dute bazkaria edota mahaia jarri, jaso eta ontziak garbitu.

Arauek ere inportanteak dira Tximeletan. Asteazkenean, haurrek edozein gauza adierazi edo protesta egin nahi badute “liburu gorria” deituriko koaderno batean idazten dute. Gero ostiralero asanblada bat egiten dute eta bertan asteazkenean bizitako arazo edota proposamenak planteatzen dituzte. Batzuetan segituan aurkitzen dute konponbidea eta beste zenbaitetan arau bat osatuz amaitzen da auzia. Beraz, arauak haurrek eurek sortuak dira. Noizbehinka bozketak ere egiten dira.

Sei urtetik gorakoentzat prestatutako espazioa da egituratuena dagoena: ordenagailuak, Montessori erako materialak, sofak, jokoak... dituzte espazio horretan. Haurrek eurek erabakitzen dute zer egin, baina erabakitzen duten hori egiteko konpromisoa hartzen dute. “Adibidez, ikasle batek ingelesta ikastea erabakitzen badu, taldea osatzen da eta irakasle bat jarritzen da horretarako, baina kasu horretan ikasleak kurtso osoan ingelesta egiteko konpromisoa hartzen du. Ikastaro zehatzagoak ere egiten dira (adibidez planeta-sistemaren ingurukoa) eta ikastaro hori egitea deliberraturatuz gero, denbora laburragoko konpromisoa hartzen dute ikasleek. Beraz, ikasleek eurek erabakitzen dute zer nahi duten, baina nahi hori ez da momentuko desio baten arabera, zerbait sakonagoa baizik”.

Haur txikien kasuan eskola arruntaren eta Tximeletaren arteko aldea ez du uste horrenbestekoa denik Gonzalezek, hezkuntza ofizialean ere asko aurreratu baita adin txikiengan. Gainontzean diferentzia



nagusia da Tximeletan helduak ez duela haurra ez dagozkion ekintzak egitera behartzen, baizik eta kasu guztietan umeak berak hartzen duela iniziatiba. Beraz, helduak batez ere segurtasuna emateko daude, eta ez gauzak erakusteko. Helduen egiteko nagusia da haurrak behatzea eta haien interesak hautematea, gero interes horiek aurrera eramateko bitartekoak jartzeko. “Hezitzaileek umeengan interes zehatzen bat piztu dela ikusten badute, interes hori gauzatzeko bideak ipini behar dituzte, igual kanpotik material konkreturen bat ekarri edota bestelako tresnaren bidez haurren eskura jarrita. Eskola honetan denborarik gehiena horrexek eramaten du, antolakuntzak”. Haurrek inolako ikasliburu eta programarik ez dute jarraitzen. Beraz, urte batean jorratzen dutena, igual hurrengo urtean ez dute lantzen, haurrek horrelakorik eskatu ez dutelako: “Umeen interesen arabera egiten da lan, edo umeak zentzua ematen dion horren arabera. Guk pentsatzen dugu askoz ere gehiago ikasiko duela eta askoz ere grina handiagoarekin baldin eta ikasiko duen horrek berarekin zerikusia badu”.

Dena ez da panazea Tximeletan ere. Baldintza kaskarrak tarteko, ira-

kasleak trinkotzeko arazoak dituzte adibidez. Beraz, irakasle gehienek denboraldi bat bertan pasa ostean alde egiten dute. “Irakasleak aldatzen dira, berriak etortzen dira eta batzutan egiten ari garenari buruz ez dakite ezer. Eta hori arazo bat da”. Finantziario guztia ere pribatua da, azken batean, autofinantzatutako zentroa da. Guraso bakoitzak lehen umea Tximeletan eskolatzearen truke 230 euro ordaintzen ditu hilean; bigarren eta hirugarren neba-arreben kasuan merkeagoa da. Horrez gain, ikastarorak ere antolatzen dituzte dirua ateratzeko eta Santi Gonzalezek berak idatzitako *Un bombero entre mariposas* liburua ere salgai daukate eta hortik ere izaten dute irabaziren bat. “Gainontzean, eskola arrunt batekin alderatuta hemen ia ez dugu gasturik, zeren eskolaren mantenu ia osoa guk egiten dugu eta material gehiena ere etxeetatik ekarria da”.

12 urterekin, hezkuntza arautura jauzia

Ikasle zaharrenak, institutura pasatzeko prestatzen dituzte Tximeletan. Hango funtzionamendurako ohitzeko tailer espezifikokoak eskaintzen dizkiete. “Kontua izan behar dugu orain arte eurentzat ezezagunak ziren hainbat gauza barneratu behar dituztela. Adibidez, azterketa bat zer den eta zertarako balio duen jakin behar dute. Hasierako aldi hartan batek hala galdetu zuen: ‘baina azterketak zertarako? Maisuak zertarako galdetzen du? Berak ez daki, ala? Eta azaldu genion ea berak zenbat zekien jakiteko zela eta erantzun zigun: ‘Eta zertarako jakin nahi dute guk zenbat dakigun? Hori axola zaie ala?’”. Gainontzean, institutura sartzeko ez diete haur horiei inolako probarik egiten.

Berez, 6urte arte ez da derrigorrezkoa eskolara joatea, adin horretatik aurrera ordea bai. Ondorioz, haur horiek 12 urtera arte legalki ez daude inon eskolatuta.

Tximeletan hiru urterekin hasi ziren haurrak dagoeneko institutuan daude eta inolako arazorik gabe doaz aurrera. Baina, eskolatzea tarteko, gurasoen artean nahiko momentu gordinak bizi izan dituzte Tximeletan. Momentu latzenetakoak umerik zaharrenek 6urte bete zituztenean bizi izan zituzten: “Bazirudien erabat ilegalak ginela eta ezingo genuela aurrera egin. Zenbait gurasok alde egin zuten orduan”. Bigarren larritasuna umerik zaharrenak institutura joan zirenean igaro zuten: “Eta orain zer gertatuko da? Ondo moldatuko ote dira gure umeak sistema arruntean?” Ikusi dute oso ondo moldatu direla eta ez dutela inolako arazorik izan. Beraz, uneotan lasaitasuna da nagusi Tximeletan: “Gainera, azken aldiaren sindromeren bat duen umeren bat bidali dute Tximeletara eskola arruntetik. Hiperaktibitate antzeko zerbaitekin etorri zen, erabat medikatua. Hemen hiruzpalau hilabete egin zituenean sendagai guztiak kendu zizkieten, medikuek ere ezin zuten sinetsi nola ko aldea egin zuen. Sinesgarritasuna irabazten ari gara”.

Jende askok galdetu ohi dio Gonzalezzi Tximeletatik ateratzen diren haurren eta eskola arruntetik ateratzen direnen artean zein diferentzia ote dagon, zertan nabarmentzen edo bereizten ote diren eskola libre horretako haurrak. Bertako gurasoen artean ere maiz ateratzen den kontua omen da. Baina Gonzalezek ez du erantzunik: “Nik hiru alaba ditut Tximeletan eta oso jatorrak dira, baina

hezkuntza arautuko beste ume batzuk ere ezagutzen ditut eta haiek ere oso jatorrak dira”. Berak argi du eskola baino garrantzitsuagoa familia dela. Hori bai, institutu etako tutoreek esanda, badakite Tximeletatik ateratzen diren haurrek, oro har, sekulako interesa dutela gauza berriak ikasteko eta arauak betetzen lehendabizikoak direla, baita borroka saihestu eta adostasunera iristen ere. Baina ume bakoitzak den bezalako da: “Nik gurasoekin hitz egin dut eta batzuk oso ondo moldatu dira, baina beste batzuk igual ez horrenbeste”.



Yolanda Jubeto



ELKARRIZKETA

Ekonomialaria eta EHUko irakaslea

“Diru asko irabazi gabe ondo bizi gaitzkeela ikusaraziko diguten erreferenteak behar ditugu”

Gaur egungo egoera ekonomikoa hobeto ulertzen lagutzeko Yolanda Jubeto ekonomialari eta EHUKo irakaslearengana jo du *Hik Hasi*-k. Krisiaren zergatiak azaltzeaz gain, lan-baldintzen eskasia eta murrizketak zerk eragin dituen ere esplikatzen du ekonomialariak, eta bestelako ekonomia- eta gizarte-eredu baterako eskolak egin ditzakeen urratsez hitz egin du.

Kontsumo arduratsua bultzatzeko beharra aldarrikatzen du Jubetok eta horretan eskolak bere hondar alea jar dezakeela uste du: “Hezkuntza-sistema oso bideratuta dago enpresa handien beharrei erantzutera. Akaso eskola probestu behar genuke elkartzuneko ekonomiako balio batzuk lantzeko”.



Krisia, murrizketak, lan baldintzen eskasia... Nola iritsi gara egoera honetara? Zein dira makroekonomia mailan egoera honetara eraman gaituzten klabeak?

Gaur egungo krisi-egoera ulertzeko 70etara jo behar dela diote autore askok. Orduan ere krisi gogor bat bizi izan genuen, petrolioaren krisia deiturikoa, baina petrolioarena ez ezik, aldaketa teknologikoak eragindako krisia ere izan zen. 80ko hamarraldira arte iraun zuen eta krisi hartatik ateratzeko erabili genuen moduak erakusten du nola heldu garen gaur egun gauden egoerara. Ez da egun batetik bestera sortutako krisia.

Mendebaldeko gizarteetan, 70eko-az aurreko hamarraldietan soldatak igotzeko joera izan zen eta etekin pisuak behera egin zuten. Beraz, botere-guneetan kapitalaren eta langileen arteko harreman hura aldatzeko gogo handia zegoen. Krisi hura baliatu zen neoliberalismoa zabaltzeko 80ko hamarraldian hasita. Langileria kontrolpean jartzeko sindikatuen kontrako borroka bortitza egin zen, Margaret Thatcherren politika gogoratu besterik ez dugu. Sindikatuak erabat ahultzea, enpresa publiko gehienak pribatizatzea eta etekinak handitzea lortu zen hala, eta kapitalaren boterea, batez ere, kapital handiaren boterea handituz joan zen. Soldatak, berriz, gero eta baxuagoak ziren. Ondorioz, zer gertatu zen? Jendeak ez zeukala dirurik kontsumitzeko. Baina, zein da sistema kapitalistaren motorra? Ba, kontsumoa. Eta irtenbidea zein izan zen? Zorpetzea.

Azken batean, aldaketa teknologikoari esker asko erraztu eta merkatu da ekoizpena eta denbora berean gero eta gehiago ekoizteko gai izan gara. Kapitalismoak aurrera jarrai dezan, ordea, ekoiztutako hori norbaitek kontsumitu behar du.

Kontsumitu ahal izateko jendea zorpetzen hasi zela diozu. Noiz eta nola gertatu da prozesu hori?

90eko hamarralditik aurrera, neoliberalismoaren zabalkundearen ondorioz, jendeari esan zitzaion dirua ia-ia doan eskura zezakeela eta zorpetzea oso ekintza arrunta eta asebetegarria zela. Zorpetzea asko zabaltzen, batez ere kontsumoa bultzatzeko eta jendea etxebizitzak erostera animatzeko. Horretarako gainera diru-laguntzak ematen zituen estatuak zergak gutxituz. Pizgailu asko geneuzkan zorpetzeko.

Kontsumo mota berriak ere agertzen joan ziren. Hamarraldi horretan egin zen ohikoa, adibidez, oporretara joateko zorpetzea. Hori fenomeno berria zen. Baina zer gertatu zen? Ba, soldatek jaisten jarraitzen zutelana. Une batzuetan langabezia asko jaitsi bazen ere, soldata jaitsieraren ondorioz, zenbaiten kasuan enplegu bat izatea ez zen nahikoa ondo bizitzeko. Batez ere AEBetan gertatu zen hori. Hemen ez horrenbeste. Izan ere, hemen 80ko hamarraldian Europar Batasunean sartu ginen, diru-laguntza asko jaso genituen, azpiegitura handiak egin ziren. Diru asko etorri zen, mugimendu handia zegoen eta bazirudien aberastan ari ginela.

Errealetik ezer ere ez zuen burbuila batean bizi izan gara? Burbuila hori lehertzeak zein ondorio izan ditu?

Kapital-fluxuen liberalizazioaren ondorioz, kapital pribatuak gero eta muga gutxiago zuen nahi zuen lekuan inbertitzeko edota espekulatzeko. 2007an azken finantza-burbuilak ez-tanda egin aurretik, hainbat urte generamatzan ilusiozko burbuila batean bizitzen: “zeinen aberastak garen, zein-

Yolanda Jubeto

E

“**Sektore publikoa zorpetu egin da bankuei laguntzak emateko, orain bankuek etekinak dauzkate, baina sektore publikora oso diru gutxi ari dira itzultzen**”

“**Estatuan txirotasuna inoiz baino handiagoa da gaur egun. Kalkulaten dute 2.000.000 pertsonak elikagai bankuei esker jaten dutela**”

nen ondo bizi garen, zenbat kontsumi dezakegun'. Izan ere, ongizatea kontsumoarekin erlazionatzen da etengabe. Baina, prozesu horren ostean zer gertatu zen? Botere guztia maileguak eman zituztenen esku geratu zela. Finantza-sektorea gero eta botere handiagoa lortzen hasi zen. Erabakigune ekonomikoetan jaun eta jabe bihurtu zen, eta hala izaten jarraitzen du. Finantza-sektoreak ekonomiaren bilakaera gidatzea lortu zuen.

Zorpetzeekin eta mailegu-sistemekin sekulako ziria sartu ziguten, hein batean. Izan ere, kontsumitzeko maileguak jasotako jende askok, soldatarik gabe edo oso soldata baxuekin geratzearen ondorioz, ezin izan du dirua bueltatu. Mailegua ordaindu ezean, ondasun hori kentzen dizute, kasu askotan etxea. Horrexegatik, pobrezia areagotzen hasi da. Gizarteko sektore bat erabat pobretu da egun batetik bestera. Estatuan txirotasuna inoiz baino handiagoa da gaur egun. Kalkulaten dute 2.000.000 pertsonak jateko elikadura-laguntza behar duela. Aberastasun urte horiek irudipen hutsean geratu dira, ez da errealia izan. Horrexegatik hitz egiten da burbuilaz.

Krisiaren ondorioz gizartea pobretzen ari den arren, sektore bat –gutxiengoa– izugarri aberastu da.

Oxfam-en azken txostenak dio munduko biztanleriaren %1ak munduko aberastasunaren % 40 daukala. Datu horiek Credit Suisse Bankuak argitaratzen ditu urtero, eta azken urteotan joera hazkorra erakutsi dute. Beraz, Bankuei aberatsekin harremana izatea interesatzen zaie, probatuta baitago aberatsak gero eta aberatsago direla. Ondasunaren piramidean, goiko erpineko %1 horretan gero eta ondasun gehiago dagoela konturatu dira. Izan ere, zer gertatzen da krisi garaietan? Handiak txikia jaten duela eta txikia erortzen dela lehenengo. Ez kontsumitzaileak soilik, baita enpresa txikiak ere, horiek ere zorpetzearen ondorioz hazi baitira. Enpresa askoren zorpetze-mailak ez dauka zerikusirik

bere inbertsio gaitasunarekin. Sistemak, ordea, horretara zaramatza. Dirua merkatuan edo burtsan nahiko merke lortzen duzu eta pentsatzen duzu etekin apur bat handiagoa aterata ondo joango zaizula, baina gero egoera aldatu delako diru hori ezin baduzu bueltatu arazoak izaten hasten zara.

Finantza-sektorearen kontrolaren ondorioz, enpresa txiki asko itxiarazi egin dituzte eta enpresa handiagoei erosi dituzte oso merke. Bankuekin ere antzeko zerbitzu gertatu da. Porrot egin duten banku asko publiko bihurtzen dira, diru publikoarekin onbidetatzen dituzte eta berriro bueltatzen dira enpresa pribatuen eskuetara. Mugimendu horren bidez diru publikoak esku pribatuetan amaitzen du. Eta horrexegatik zorpetu da horrenbeste estatua. Zeren krisiaren hasieran zorrik gehiena pribatua zen.

Zor pribatu hori, ordea, zor publiko bilakatu da. Zergatik?

Europako Bankuak ezin die dirurik eman estatuei, Europako Bankua sortu zenean Europar Erkidegoko agintariak hori adostu baitzuten. Bankuei ematen die dirua eta oso merke gainera, ia doan. Bankuek, ordea, estatuei diru hori askoz ere garestiago mailegatzen diete. Mugimendu horrekin soilik dirutza irabazten dute bankuek. Estatuak, ostera, geroz eta zorpetuago daude. Sektore publikoa zorpetu egin da bankuei laguntzak emateko, orain bankuek etekinak dauzkate, baina sektore publikora oso diru gutxi ari dira itzultzen. Eta sektore publikoaren irtenbidea gastuak murriztea izan da. Eta zer ari da murrizten? Zerbitzu publikoak. Eta zein zerbitzu publiko? Osasuna, hezkuntza, ikerketa, ikasleen bekak... Gu geu ari gara ordaintzen bankuek eta boteretsuenek sortutako krisia.

Krisi egoera hau kudeatzeko, ba al zegoen murrizketak eta lan-erreforma hau ez beste alternatibarik?

Bai, baina sistemaren kontra jarritz.

Finantza-sistema publikoa izan behar da. Diruaren mugimendua eta diruaren kudeaketa benetan ekonomiaren zerbitzura jarri nahi bada, horrek publikoa izan behar du. Sektore publikoak erronka oso garrantzitsua dauka finantza-sistema aldatzen, baina hori planteatzea bera heresia ekonomikoa da gaur egun. Horrekin batera pribatizatu diren beste zenbait jarduera ere publiko edo komunitario bihurtu beharko lirakeke atzera, hala nola, osasuna, telekomunikazioak, energia, ur-kudeaketa... Ondasun komunen, hau da, guztiontzako beharrezkoak diren ondasunen aurrean publikoaren edo komunitarioaren aldeko hautua egin behar dugu.

Publikoari edo komunitarioari lotutako beste eztabaida bat ere badugu. Adibidez, lur komunitarioak galduz joan dira pribatizazioarekin. Hori atzera ere berreskuratu egin beharko genuke. Lan komunitarioari eta auzolanari ere garrantzia eman beharko genioke. Beste ikuspegi bat behar dugu zer izan behar den pribatua, zer publikoa eta zer komunitarioa erabakitzeko. Komunitarismoa bultzatzea erantzukizun soziala areagotzeko birtarteko bat ere bada eta hori oso interesgarria izan daiteke, sistema kapitalistaren beste ardatzetako bat indibidualismoa baita. Bakoitza bere buruarekin soilik kezkatzen da eta besteak hor konpon.

Badirudi botere ekonomikoak botere politikoa erabat menpean daukela. Finantza-sektorea ezin da erregulatu?

Horrek ere badauka azpian trampa. Alde batetik, Europar Batasunean lobby asko daude eta sekulako indarra dute gainera; eta beste aldetik, ate birakariaren fenomeno gertatzen da. Kontuan izan behar dugu alor ekonomikoari dagozkion erabaki asko Europar Batasunean hartzen direla. Europar Batasunean, eta bereziki Bruselan, erdian eraikin ofizialak daude eta inguruan enpresa handien bulegoak, izugarritzko lobby lana egiten dutenak. Erabaki bat hartu behar



den bakoitzean ordezkari politikoek enpresa handi horiekin negoziatzen dute. Lobbyen papera oso garrantzitsua da araudiak gehiengoaren alde ez, baizik eta botere ekonomikoaren alde zergatik egiten duen ulertzeko.

Ate birakariari dagokionez, berriaz, argi ikusten da Europako estatu-buru asko, eta goi-kargu ugari, kargu publikoa utzi eta berehala enpresa pribatuetara igaro direla. Hor dauzkagu Aznarren, Gonzalezen, Blairren, Schröderren edota beste hamaika politikariren kasuak. Euren herrialdearen eta bertako biztanleen onura ekarriko zuten politikak egin beharrean, enpresa pribatuen onurarako politikak egiten aritu dira. Lotura estuegia dago botere ekonomikoaren eta politikoaren artean. Eta gaur egun esan dezakegu botere ekonomiko kapitalista dela benetan beste guztiaren gainetik agintzen duena. Oxfam-en azken txostenak

dio botere ekonomikoak bahitu egin duela botere politikoa.

Horrela jarraitzen badugu, ordea, planetak eman dezakeena baino gehiago beharko dugu bizitzeko. Kontziente gara horretaz? Eta erakundeak?

Kapitalismoaren ereduarekin, etengabe hazi eta produzitu behar horrekin, lurra jaten ari gara etengabe. 1972an Erromako Klubak zientzialariari hazkunde ekonomikoa ingurugiroan izaten ari zen eragina neurtzeko txosten bat egiteko eskatu zien. Kontsumoak, produkzioak eta populazioak XX. mendeko abiaduran hazten jarraitzen bazuen, Lur planetak kolapso egoerarako zuen arriskua neurtzeko Meadows izeneko txostena aurkeztu zuten. Bertan zioten kontsumo joera aldatu ezean, 100 urteren buruan barru-arazo larriak sor zitezkeela, eta 40 urte daramatzagu geroz baino geroz

“Bizi-eredu honekin jarraitzen badugu eta planetaren mugak ez baditugu errespetatzen, gero eta arazo larriagoak izango ditugu”

“Ondasun komunen, hau da, guztiontzako beharrezkoak diren ondasunen aurrean publikoaren edo komunitarioaren aldeko hautua egin behar dugu”

azkarrago haziz. 2012an ekologian oinarritutako beste txosten bat aurkeztu zuten eta ikusi zuten Meadows txostenak zioena betetzen ari dela. Beraz, horrela jarraituz gero arazoak aregotuko dira.

Hala ere, krisitik ateratzeko gakoa produkzio, eta beraz, kontsumo handiagoan oinarritzen dute agintariek.

Bai hala da, eta kontsumoa gutxitu egin behar dugula eta beste era batean kontsumitu behar dugula planteatzen baduzu zorotzat hartzen zaituzte; ematen du enpleguaren, etorkizunaren, ongizatearen kontra zaudela. Horrelako proposamenen aurrean sekulako gaitzespena dago, baina alde batetik normala ere bada, gure heziketa osoaren oinarrian hazkundera ongizatearen sinonimotzat hartu baitugu. Automobilgintza industriaren adibidea jarritz, zenbateraino behar ote dugu horrenbeste auto? Etengabe dirulaguntzak ematen dira eta *renove* planak egin, baina ez da zoramena guztiok auto bat edo bi eduki behar ditugula pentsatzea? Baina, noski, automobilgintzak zer eskatzen du? Gero eta errepide gehiago. Gero eta produkzio handiagoa. Kolokan jartzen ez badugu zer eta zertarako ekoizten dugun eta ekoizten dugun hori ea benetan gure ongizaterako den, gurpil zoro batean sartuko gara eta ezingo gara hortik atera.

Denboran zenbat gehiago luza daiteke ekonomia-eredu hau?

Kolektiboaren iruditerian hau da ezagutu dugun eredu, eta aldatzea ia ezinezkoa dela pentsatzen dugu. Nik uste dut gure buruak inertzietarako eta errutinetarako joera duela. Horregatik, egoera hau aldaezina dela pentsatzen dugu, edo gutxienez guk ez daukagula botere eta ahalmen nahikorik ezertarako. Beldur kolektiboa eragiten komunikabideek jokatzen duten rola ere funtsezkoa da, azken batean beldurrak geldiarazi egiten baikaitu. Baina beste alde batetik, guk badakigu sistema honek ez dugula zo-

riontasunik ematen; gutxiengo batek lortzen du desio duen lanpostua, edo benetan bizitzan nahi duena egitea. Etengabeko frustrazioan, antidepressiboen nolako kontsumoa dagoen begiratu besterik ez dugu horretaz oartzeko. Gizarte gaixoa daukagu, eta hortik sortzen dira bortizkeriak, depresioak, drogaletasunak, etxeko gatazkak, ezinegonak... Gainera sistemak antsietate izugarria eragiten du, aurrean jartzen digu lortu behar dugun hori, baina lortzen dugunean lortu dugun horrek ez gaitu ase eta zerbait berriaren bila hasten gara. Gure barnean, ordea, sistema honek izugarritzko mugak dituela ohartzen gara. Horregatik, ekimen alternatibo asko ari dira sortzen, baina oraindik txikiak dira eta bakoitza bere kaxa ari da lanean. Hala ere, iruditzen zait egunen batean hortik zerbait berria sortuko dela. Marxek zioen kapitalismoak pobreak pobreago eta aberatsak aberatsago egiten dituela, eta pentsatzen zuen, barruko kontraesanengatik, egunen batean kapitalismoa lehertu egingo zela.

Iritsi gara kapitalismoaren leherketa horretara?

Ez dakigu. Muga batean gaudela dirudi. Kapital kontzentrazioagatik eta eragiten dituen desberdintasunengatik muga batera ari da iristen. Lehen mundua aztertzerakoan Mendebaldean soilik zentratzen ginen. Gainontzeko guztia gu zerbitzatzeko zegoen. Beste herrialde batzuk ere esnatu egin direla konturatzen gara orain. Latinoamerika adibidez, edota ekialdeko herrialdeak. Pena handia da Txina eredu kapitalistan bete-betean sartu izana. Latinoamerikan, ordea, beste eredu bat behar dugula eta eredu hori nolakoa izan litekeen pentsatzen ari diren mugimenduak indarra hartzen ari dira. XXI. mendeko sozialismoaz hitz egiten dute haiek, euren kontraesan guztiekin, baina gutxienez beste mundu mota baterako trantsizioa egin behar dugula aldarrikatzen dute.

Deshazkundera beharrezko da? Posible da? Nola gauza liteke?

Ekonomialariontzat deshazkundera erronka izugarria da. Hasieran kontzeptu hori entzuteak buruan eten bat eragiten du. Izan ere, orain bertan BPG igotzen ari dela entzuten badugu edo kontsumo hazkundera egon dela, geure barrenean nolabaiteko lasaitasuna sentitzen dugu eta geure buruari esaten diogu: “Beno, hau buelta hartzen hasi da”. Testuinguru horretan beste ezer jakin gabe deshazkundera bezalako kontzeptu bat entzutean, krisian, langabezian nahiz pobrezian pentsatzen dugu zuzenean. Baina deshazkunderaren ideia, bereziki, pentsarazteko erronka gisara planteatu zen. Egoera baten mugara iritsi garelako esateko moduan izan zen. Hitzak bera ez dakit egokiena den, baina bai atzean daukan planteamendua, zertan edo zein eremutan hazi nahi dugun eta zein eremutan deshazkundera bultzatu behar den pentsatzeko bidea ematen baitu. Gure kontsumo ohituraren inguruan hausnartzeko oso proposamen egokia da.

Eskolak –hezkuntza-sistemak– zer egin dezake bestelako gizarte eredu edo ekonomia eredu baten alde?

Eskolak lehendabizi bere eragina mugatua izango dela ohartu behar du. Askotan guztia eskolaren gain uzten dugu eta hori ez da bidezkoa, izugarritzko pisua jartzen baitugu irakasleengan. Nik gurasoei ere eskola batzuk emango nizkieke. Uste dut zer ikasia badutela haiek ere. Sistema kapitalistak gure umeekin gero eta denbora gutxiago egotera eramanez gaitu eta gero hutsune hori materialki, gauzak eta gauzak erosiz bete nahi izan dugu. Ume asko guztia eskura izaten ohitu ditugu. Orain dela gutxira arte hori ez zen gertatzen. Zerbait lortzeko denbora mordera behar zenuen; orain dena berehalakoa izan behar da eta une honetan desio dugun hori lortzen ez badugu negar egiten dugu. Berehalakotasun hori oso kaltegarria da, ansietate izugarria sortzen baitu. Aldi

berean asegaitz gara. Inoiz ez gara ase. Hortaz, eskolan gurasoekin batera zer nolako bizi-eredua bultzatu nahi dugun hausnartu beharko genuke. Eta eskolarekin eta familiarekin batera administrazioa ere sartuko nuke elkarlan horretan.

Iruditzen zait gauza asko egin daitezkeela. Adibidez, gure beharrei begiratuta soilik, galde genezake zein den gure lehen beharretako bat: jatea, esaterako. Iruditzen zait janaren gaia adibidez, eskoletan bigarren mailan geratu dela. Kanpoko enpresa gutxi batzuen esku dago eta ez da uzten ja-

naria bertan prestatzen. Zergatik ez bultzatu inguruan ekoizten dena kontsumitzea? Hurbileko nekazaritza-ekologikoa edo familia-nekazaritza? Eta zergatik ez gara hasten eremu hurbilean ekoiztatzea eta eskolan prestatutakoa jaten? Horrelako ekimenek eredu berri baterako sarbidea eman dezaketela iruditzen zait. Uste dut janaritik hastea oso abiapuntu polita izan daitekeela, eta horrekin lotu beste ohitura batzuk, berrerabilpena edo birziklapena, esate baterako. Kontsumo arduratsua da gakoa. Eskolan, gurasoekin eta hezkuntza sailarekin ha-



Yolanda Jubeto

E



rremanean bizimodu osasungarri eta iraunkorra lantzen eta askoz ere austeroago izaten saiatu behar dugu.

Gizarte eredu neoliberal bati erantzuteko pertsonak sortu nahi ditu Wertek erreformak. Horrek nora eramango du etorkizuneko gizartea?

Itxaropena daukat Wert legea ez dela indarrean jarriko. Iruditzen zait Wertek proposatutako erreforma politikoa eta ideologikoa dela, ez dela zentratzen hezkuntza-sisteman. Kezkagarria da adibidez erakusten duen joera elitista eta merkantilista. Hezkuntza pribatizatzeko tresna dirudi. Edukiei dagokienez, kezkagarria da era berean, filosofiari ematen zaion trataera. Uste dut pertsona egiten gaituzten balioak baztertu egiten duela lege horrek, ez duela batere laguntzen elkartasuna eta bestelako balio-etikoak sustatzen, ezta pertsonak formatzen ere, baizik eta juxtu kontrakoa; atzerakoia eta teknokratikoa da. Pertsonak makinak balira bezala hartzen ditu eta deshumanizazioa bultzatzen du alor guztietan. Nire ustez funtsezkoa da eskolak balio humanistikoak bultzatzea, bere zentzurik zabalenean.

Elikagaiak aipatu ditut, baina musika, kirol komunitarioa, jolasa eta beste hainbat jardun ere hezkuntza mota horren barruan sartuko nituzke, baita eskolaz kanpoko ekintzetan gaur egun antolatzen diren jarduerak ere, guztia txertatuko nuke hezkuntzaren barruan. Eskolan umeen sormena bultzatuko duten era guztietako

jarduerak egitea garrantzitsua dela uste dut. Haurrek aske sentitu behar dute eta benetan gustatzen zaiena egin. Euren pasioak bilatu behar dituzte. Horrek guztiak zer eskatzen du? Hezkuntzan eta irakasleen formazioan gehiago inbertitzea. Gure etorkizuneko eta garapenerako zerbait estrategikoa bada, hori gure haurren hezkuntza da. Gure haurren ongizatean eta garapenean pentsatu behar dugu, baina pertsona moduan ulertuta, ez robotak bailiran. Hezkuntzak alderdi zientifikoa behar du, baina baita humanistikoa ere, zeren zientziak humanitaterik gabe soilik munstroak sortzeko balio baitu.

Eskolatik pasatzen dira etorkizuneko langileak, agintariak, enpresariak... baina, era berean, eskolan dauden haurrak ere gaur eguneko pertsonak dira, elitismoa, kontsumismoa... bizi dutenak. Posible al da bestelako eskola-eredu bat?

Gaur egun hezkuntza-sistema oso bideratuta dago enpresen beharrei erantzutea, eta batez ere enpresa handien beharrei. Hortaz, akaso eskola probestu behar genuke bestelako ekonomia-harremanak lantzen hasteko edo elkartasuneko ekonomiako balio batzuk lantzeko. Ekonomia-balioak aldatzeko bere ekarpena egin dezake eskolak eta ereduaren aldatetarako trantsiziorako ere oinarri batzuk ezarri ditzake. Ez dut uste erraza daukanik. Izan ere, eskolan dauden bitartean haurren heroiak futbolariak dira, baloi bati ostiko egin eta milioiak irabazten dituztenak; edo pasarella batetik pasatzeagatik dirutza eskuratzen duten modelook, aberatsak direlako zein pozik bizi diren esaten dutenak. Komunikabideetatik iristen zaizkigun mezuak oso bortitzak dira eta ereduak oso gogorrak. Benetan pentsatu beharko genuke zelan jarri beste erreferentzia batzuk haurren esku, beste kirolari mota batzuk, zientzialariak... Beste era bateko erreferenteak behar ditugu, apaltasunetik diru asko irabazi gabe ondo bizi gaitezkeela ikusaraziko digutenak.

“Eskolan, gurasoekin batera zer nolako bizi-eredua bultzatu nahi dugun hausnartu beharko genuke. Kontsumo arduratsua da gakoa”

“Hezkuntzak alderdi zientifikoa behar du, baina baita humanistikoa ere, zeren zientziak humanitaterik gabe soilik munstroak sortzeko balio baitu”



0-3. Hezitzaileen formazioa

Motrizitatearen bi aurpegiak

“Haurrak ez du aspertzeko betarik, bere ekimena errespetatzeko baldintzak sortzen badira”

0-3 zikloko hezitzaileen prestakuntzako Gabon aurreko saioan Juanjo Quintela psikologoak azaldu zuenez, gurasoen eta profesionalen artean oso zabalduta dago motrizitatearen garapenean helduak “irakasle” rola jokatzeko duela ustea. Helduaren esku-hartzea zabalduta eta onartuta dago mundu osoan, eta naturalizat hartzen da. Mugimenduak “irakasteak”, ordea, hainbat arazo eragin ditzake haurren garapen motorrean, Quintelaren esanetan. Bi alderdi nabarmentzen ditu: batetik, tentsio muskulu-eskeletikoei loturikoak, eta, bestetik, pasibotasunaren ikaskuntzarekin eta mendekotasunarekin zerikusia dutenak.

Tentsio muskulu-eskeletikoei dagokionez, psikologoak dio, haur bat bere kasa buelta emateko gai izan gabe sabelaren gainean itzularazten denean, bere kasa esertzeko gai izan gabe eserazten denean edo oinez ibiltzen ikas dezan eskutik helduta eramaten denean, hasieran mugimendu berri horiek guztiak koordi-

nazio txarrarekin egiten dituela haurrak eta horrek uzkuertzeak eta tentsioak sortzen dituela sarri. Gehiengotan, abiapuntuan jarrera estatiko anormal bat dago, lehen unetik ikus-teko modukoa: haurrak burua egonkortzen du, sorbaldetan hondoratuz, edota bizkarra okertzen du eserita dagoenean. “Gihar batzuk uzkuertu egiten dira, tenkatu, eta beste gihar talde batzuk erlaxatu egiten dira, eta ez dute zereginik betetzen orekari eusteko orduan. Adibidez, eserita egotera behartutako 4-5 urteko haurrak bizkarra zurrin dauka, baina erabat pasibo dago hanketako muskulatura: hautsi da muskulaturaren oreka globala”. Psikologoaren hitzetan, horixe gertatzen da, adibidez, umea altxatzeko eta hari eusteko ditugun ohitura batzuetan ere. Izan ere, ume txiki txiki bat altxatzeko, oso ohikoa da eskua haren sorbalden azpitik pasatzea edo eskuetatik heldu eta gorantz tira egitea. “Horrek umearen burua berriz eusteko gai izan aurretik atzera erortzea eragiten du, edo umeak le-

poaldea uzkuertzea burua atzera erortzeko joera horretatik babesteko”. Psikologoak gaineratu du, helduen kasuan ez dela ohikoa ariketak posizio desorekatu batean egitea, gizabanakoa posizio faltsuetan luzaro immobilizatzea edo aldizka ariketa akastun bat egitera behartzea. “Haatik, hori da gertatzen dena haur txikia etzaneko posiziotik eseriko posizioa altxatzen dugunean edo, geroago, oinez ibiltzen irakasten diogunean. Gorputz-jarreraren mantentzea lehen haurtzaroan zirriborrotzen dela onartzen badugu, helduaroan gorputzak dituen akats eta deformazio ugariaren jatorria garai hartan egon daiteke”.

Pasibotasunaren ikaskuntzari eta mendekotasunari buruz, berriz, Quintelak argudiatu du bizkarrez ume guztiak direla aktiboak eta bizitasunez mugitzen direla; baina, bizkarrez aktiboa den haur bat ahuspez posizio horretara bere kasa iristeko gai izan gabe jarritz gero, harmonia, malgutasuna eta koordinazio ona desagertzen direla. “Posizio horretan

haurra immobilizatuta dago, eta bere mugimenduak murriztu egiten dira. Burua altxatu besterik ezin du egin. Hala, aktibotasun-egoera batetik pasibotasun-egoera batera pasatzen da haurra, baina ez bere borondatez. Hau da, sekuentzia horretan, haur autonomo eta harmoniatu bat dugu hasieran; helduak autonomia eta harmonia horiek hausten ditu, eta haurrarena ez den jarrera batean eta, beraz, mendekotasun-posizio batean kokatzen du”. Psikologoak azaldu duenez, gauza bera gertatzen da haurra oraindik bere kabuz gauza ez denean esertzera behartzen bada ere: segundo batzuk lehenago miatzaile seguru eta orekatua zen haurtxoa immobilizatu egiten da posizio berrian, segurtasuna galduko du, eta aurrerantz tolestuko da, albo batera edo atzera eroriko da, inolako gorputz kontzientziarik gabe eta berriz orekatzeko baliabide propiorik gabe. “Bere kasa egin ezin dituen baina helduarekin izan ditzakeen mugimendu-espereientziakin liluratuta sentitzen da sari haurra. Eta, horren ondorioz, urduri, kontentagaitz eta ‘gogaikarri’ bihurtzen da maiz. Horixe da arrazoi bat ulertzeko helduari zergatik eskatzen dion gero eta maizago posizioz aldatzeko: eserita, zutik, oinez jartzeko edo sentsazio zehatz batzuk biziarazteko”.

Haurra helduaren laguntzarekin egindako mugimendu aurreratuek erakartzen dutela dio Quintelak,



eta inork etengabe laguntzeko beharra “berezko” eta “ohiko” bilakatzen dela. Izan ere, jarrera, mugimendu edo sentsazio zehatz batzuetara bere kasa helduaren laguntzarekin bezain erraz eta azkar iristeko ezintasunak frustrazioa eta nahigabea sortzen ditu haur txikiarengan. “Hain zuzen, helduak hasitako jolasgarai horietan, haurrak bere kasa bete ezin dituen itxaropenak piztu dituelako helduak. Orduan, helduari begiratzen dio, heldua bilatzen du, eta bereak diren jardueretik interesa eta plazera galtzen ditu: bere barruan ‘bilatzeari’ uzten dio, bere gaitasunetan ‘sinesteari’ uzten dio, eta kanpoko ekimenaren zain geratzen da... Eta helduak ez badu une oro entretenitzen, aspertzen ari dela ematen du, ez baitakiz zer egin bere kasa. Baina aspertzen ari dela ematen badu, zer edo zer gertatzen ari da. Haurraren ekimena errespetatzeko baldintzak sortzen badira, ez du aspertzeko betarik. Mundu honetara iritsi berria da eta dena zaio, berez, interesgarri (gauza bereziak egin behar izan gabe, etengabe entretenituta eduki behar gabe...). Haurraren pasibotasunak beste jatorri bat du: helduek irakasten dute, azkartzen dute, aurreratzen dute... Eta, hori egin ahal, gero eta kasu gutxiago egiten diete haurren ekimenei, seinaleei... Horrela, ekimen eta seinale horiek gero eta ezohikoagoak dira, haurra imitazioa eta errepikapenera ohiitzen baita ia eremu guztietan. Jokamolde horrek

erabat mendeko eta pasibo bihurtzen du haurra”.

Haurtzarorako eskubidea

Helduen eta haurren arteko harremanaz ari delarik, Bernard Golse-ren hitzak ekarri ditu gogora Quintelak. Haurrak gaizki tratatzeko moduez ari delarik, hirugarren modu bat aipatzen du Golsek tratatu txarren arloan: haurrak bere kasa dituen ahalmen guztiak indarrean jartzeko helduen eragozpena. “Izan ere, bere ahalmenak gaurkotu ahal izatea da haurraren behar funtsezkoenetako bat, baina ez du bakarrik egin behar, baizik eta presentziarekin, begiradarekin eta pentsamenduarekin babesa emango dion heldu batengandik gertu, haurra ordezkatu gabe, haurraren berezko erritmoa errespetatuz eta bizitzan eta eguneko esperientzietan agertzen diren arazoei bere mailako konponbideak aurkitzeko konfiantza osoa emanaz. (...) Gaur egungo mendebaldeko gizarteetan haurtxoei haurtxoak izateko nahikoa denbora ez uzteko ohitura astuna dago. European, gero eta ezohikoagoak dira, eta, hortaz, gero eta zoragarriagoak; baina, aldi berean, gero eta beranduago iristen dira bikoteen bizitzara, eta, horren ondorioz, gero eta lehenago eskatzen zaie autonomoak izateko. Haurren eskubideetako bat, haurtzarorako eskubidea, kentzen diegu horrela. Gure gizarteetan haurrari eta haurtzaroari buruz dugun ikuspegi hori oso anibalentea da, haurtxoak idealizatzen baititugu eta, aldi berean, gure irrikazko aurrerapenen gatibu eta eraginkortasunaren eta azkartasunaren kulturara garamatzaten jarrera zorrotzen gatibu bihurtzen baititugu. Iruditzen zait anibalentzia hori lotuta dagoela helduak bere haurtzaroz gordetzen duenarekin, baina, aldi berean, helduek galdu nahi ez duten haurrekiko botere harremanean oinarritzen dela”.



Alvaro Beñaran eta Juanjo Quintela

Golseren ildoari jarraiki, badago helduaren aldetik haurra mendekotasunezko egoera batean edukitze-ko jolas inkontziente bat, Quintelaren hitzetan, helduak haurraren autonomia desiratzen baitu baina, horrekin batera, harentzat ezinbestekoa izateko bere sentimendu propioa ere asebate nahi baitu: “Haurra-ekin harremanetan jartzen garenean, haurtxo errealaz gain, haurtxo irudikatu bat dago gure barnean, gure bizitzan eta gure izatearen sakonean ehuntzen joan den haurtxo-irudi bat”. Haur irudikatuaren eta haur errealaren arteko topaketatik bi indar motaren arteko joko konplexu bat sortzen dela gaineratu du: “Indar batzuek helduei haurraren tokian jartzeko gaitasuna ematen diete, haurra den bezala sentitu eta onartzekoa. Beste indar batzuek, aldiz, aurrez aurre jartzen dituzte haur irudikatua eta haur erreala”. Bi indar motak gure barruan bizi dira, psikologoaren esanetan: “Hordago haurra hezteko eta autonomia izateko desira; baina hor dago ez hazteko, haurtxoa izaten jarraitzeko eta gure beharra izaten jarraitzeko desira ere. Hor dago umeak bere kasa jokatu eta erabaki dezan desira, baina hor dago haren gaineko boterea izateko, hura menderatzeko eta maneiatzeko de-

sira ere. Hor dago den bezala errespetatzeko eta onartzeko desira; baina hor dago helduak egin duen haurtxo idealaren irudia ase dezan presioa egiteko beharra ere. Desira horiek guztiak, desira bizi eta kontrajarri horiek, helduon barruan bizi dira. Eta, desira orok gauzatzera jotzen duenez, haiek bezala kontrajarriak izan daitezkeen haziera-ekintzetan azaleratzen dira”.

Dena den, Quintelak azaldu duenez, haurrak ere desira kontrajarriak ditu, helduaren antzera. Izan ere, haurra berezko ahalmen batekin jaiotzen bada ere eta nahiz eta haurrak berak ahalmen hori garatzeko desira eta gaitasuna izan, helduen desirarekiko ere mendekotasun handia sentitzen du. “Dena oso anbigua da, eta kontraesan ugariakoa. Gurasoek beren haurra oinez ibiltzen ikusi nahi dute (ibiltzea autonomiaren seinale delako); baina mendekotasunezko egoera batean jarriz bilatzen dute haurraren autonomia. Gorputz-jarrera egoki batean jarritako haurra autonomia da, esploratzailea eta orekatua da, baina ez zaio ‘entzuten’, ez da ‘ikusten’, ez dira haren autonomia eta oreka errespetatzen. Eseriko posizioa, zutikako posizioa eta oinezkoa hartzen dira funtsezko mugimendu gisa, mugimen-

du ‘enblematiko’ gisa... Gurasoak, helduak, oro har, haien zain daude irrikaz, eta kezka sortzen digu atzerapenak. Baina, desira horren atzean, haurtxoa ‘hemen eta orain’ denaren nolabaiteko ukazioa dago. Ez ditugu begien aurrean dauzkagun aberastasuna, aniztasuna, oreka, plazera... ikusten. Geure itzaropena bakarrik ikusten dugu. Haurtxoak egitea nahi duguna bakarrik ikusten dugu, ez egiten duena, ez haurra dena”.

Piklerren ikerketaren ondorioak

Motrizitate globalaren garapenaren inguruan ikerketarik aurreratue- nak Emmi Piklerrek eta Lóczy Institutuko taldeak egin zituen, eta horretan oinarritzen da Quintelak 0-3 zikloko hezitzaileentzako prestakuntzan emandako saioa. Izan ere, Pikler eta haren kideek 2.000 haurretik gora aztertu zituzten, eta ondorio nagusi bi atera zituzten:

1) Garapen motorraren lehen fasean (hau da, haurrari buelta ematea, eseraztea, zutik jartzea, oinez ibilaztea), horiek guztiak lortzeko helduen esku-hartze zuzena ez da nahitaezko eta aurretiazko baldintza. Ingurunearen baldintzak aldekoak baldin badira, haurtxikiak bere kasa, bere ekimenez, kalitate oneko eta ondo orekatutako mugimenduekin lortzen du sabelaren gainean jartzea eta, horren ondoren, bira egitea, herrestaztea, lau hankan ibiltzea, eser- tzea eta zutik jartzea.

2) Haurra edozein aitzakia hartuta sabelaren gainean biratzeak, eserita edo zutik jartzeak, oinez ibilazteak... ez dio haurraren garapenari laguntzen; aitzitik, jarduera kaltegarria da –posizio horietan dorpeki egotera behartzen da haurra, oreka muskular eta tonikorik gabe, erabat edo alde batean immobilizaturik, bere kasa gero eta mugimendu landua- goetara iristea eragotziz–.

KATTUKA HAUR-ESKOLA

Familiei eta komunitateari irekia

Arbizun, Nafarroako Sakanan dago Kattuka haur-eskola. 0-3 urteko haurrak hartzen dituzte han, eta, Arbizuko nahiz Lakuntzako familiei ez ezik, Sakanako beste hainbat herritakoei ere eskaintzen die zerbitzua. Hirugarren ikasturtea besterik ez badu ere, herriko zein bailarako zutabe garrantzitsu bilakatu da. Etengabe prestatzen aritzea eta familiei irekita egotea dira eskolako hezitzaileen premisa nagusiak.

Legez sei unitate izateko baimena du Kattukak, hau da, 16 titiko (0-1 urteko haurrak), 26 ibiltari (1-2 urteko haurrak) eta 38 nagusi (2-3 urteko haurrak) har ditzake. 8 kideko taldea ari da Kattukan lanean. Horietatik bost arreta zuzeneko hezitzaileak dira, haiei laguntzeko beste hezitzaile bat ere badute, eta *askotariko zerbitzuak* deiturikoan beste bi ari dira lanean. Horiek biak jangelaz eta garbiketaz arduratzen dira nagusiki. Baina guztiek ordutegi berebanean jarduten dute, eta horri berari ere garrantzia ematen diote. Izan ere, Eider Garde eta Izaskun Larrion haur-eskolako hezitzaileek azaltzen dutenez, jangelan nahiz garbiketean lanean aritzen direnak ere haurrentzat erreferente dira, eta harremanetan daude etengabe.



Kattuka Haur Eskolako hezitzaile-taldea

Pedagogiari dagokionez, Loris Malaguzzi eta Reggio Emiliako eredu nahiz Emmi Pikler eta Lóczy Institutukoan oinarritzen dira Kattukan. “Saiatzen gara, ahal dugun neurrian eta gure errealitateara egokitut –ratioak ere oso kontuan izan behar baititugu–, teoria horiei kasu egiten”, dio Gardek. Eskolan, hiru adin-tarteetarako aretoak ez ezik, bestelako txokoak ere badituzte, hala nola psikomotrizitatekoa, argi-lantegia, artekoa, jolastokia, jangela eta sukaldea, moztorroena... eta baita hainbat lan-tegi eta jolas egiteko aukera ematen dien pasabide zabal bat ere. Horrek

talde txikitan banatu eta haurrak euren ohiko aretotik ateratzeko aukera ematen die hezitzaileei: “Guk haurrei aukera ematen diegu euren ohiko gelatik ateratzeko eta bestelako txokoren batera joateko, eta, normalki, oso gustura ateratzen dira. Piklerren ildo-ko zenbait hezitzailek eta adituk ez dute hori ulertzen. Esan izan digute gela dela haurra babesten duen espazioa, eta ea zergatik egiten dugun hori. Guk dugun errealitatea dugu, eta gure ratioekin iruditzen zaigu agian haurrak babestuago sentitzen direla talde txikian, beste espazio batean”, gaineratu du.



Antolaketari dagokionez, ordea, ez dute ordutegi itxirik. Arratsaldean ume gutxiago egoten direnez, malgutasun handiagoarekin jokatzeko eta umeek eurek uneoro erabaki dezakete nora joan eta zer egin nahi duten. Goizez aukera ez da hain zabala izaten, adin-tarte bakoitzeko hurrekin bi heldu daudelako eta zenbait ekintza egin ahal izateko taldea egituratzea komeni izaten delako. Adin-tarte bakoitzeko haurrak bi taldetan banatzen dituzte, eta bi talde horietako bakoitzak bere heldu erreferentea du. Beraz, talde txikiko ekintzak normaleki erreferentziatzeko hezitzailearekin egiten dituzte. “Edozein kasutan ere, talde txikiko lantegiak antolatzen ditugun arren, saiatzen gara hurrei galdetzen joan nahi duten edo ez. Beraz, joatea erabakitzen badute, talde txikian euren heldu erreferentearekin ateratzen dira gelatik, eta, gainerakoan, beste hurrekin eta erreferentziatzeko helduarekin geratzen dira gela barnean. Normalean, gelatik atera nahi izaten dute, gelan gatazka gehiago sortzen direlako”, azaldu du Larrionek.

Bazkalordua ere modu berezian antolatzen dute Kattukan. Titikoen gelan bertan jaten dute, Piklerren es-

kalari jarraituz. Lehenik soinean, eta gero, pixkanaka, bikoteka bazkaltzen hasten dira. Ibiltarientzat ere gelan bertan daukate atonduta jateko tokia. Bi itxitura dituzte, eta horietako batean egiten dute bazkaria. Batzuek banaka jaten dute, baina beste batzuk hasi dira dagoeneko binaka edo hirunaka jaten. Nagusiek, azkenik, jangelan bazkaltzen dute, bi txandatan. 11:30ean bazkaltzen du lehen taldeak, eta haiek amaitzean, bigarrenak. Nagusien gelan, orotara, 14 haur daudenez, antolaketa horren bidez bermatzen dute jangelan hezitzaile bakararekin asko jota zazpi haur egongo direla. Jatordu duin bat egin ahal izateko asko hausnartu eta barne-lan handia egin dutela dio Gardek. “Orain nagusien gelan dauden haurrak titikoen gelatik daude gurekin, eta titikoen gelan jada txandak egiten hasi ginen. Hala, haur bakoitzak bazekien noren atzetik zihoan. Txanda horiei beraiei eutsi diegu bai fardel aldaketarako eta bai bazkaritarako. Iaz bi mahaitan jaten zuten; aurtun, ordea, guztiok mahai bakarrean jatea erabaki dugu, hezitzailea eta haurrak mahai beraren bueltan direla. Aldamenean ikasmahai bat ere badago, haurren batek taldean jan nahi ez bado ere han esertzeko aukera izan dezan”. Hezitzaileek ere txandak egiten

dituzte. Hala, aste batean hurrekin jangelara doana hurrengoan fardelak aldatzeaz arduratzen da. Beraz, fardela beti hezitzaile erreferenteak aldatzeko ohiturari ez diote beti eusten, baina hurrek badakite aste bakoitzean nor den fardel-aldaketako arduraduna eta nor jangelakoa. “Ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara, baina gauza batzuk aurrera eraman ahal izateko, beste batzuk alboratu egin behar izaten ditugu”, adierazi du Larrionek.

Siestarekin ere antzera jokatzeko dute. Hurrek ez daukate siesta-ordurik, eta hezitzaileek ere ez dituzte lotara behartzen. Umeek eurek badakite ohe txikietara edo sehasketara igotzen, eta, nekatuta daudenean, han jarri eta lo egiten dute, bakoitzak bere behararen arabera.

Kattukan saiatzen dira haurren profilarren oinarri nagusia autonomia izan dadin. Hurrek badakite uneoro eurek erabaki dezaketela, baina hainbat unetan hezitzaileek autonomia hori moztu behar izaten dute. Gardek esplikaturako eran, aurtun oso hausnarketa interesgarria ari dira egiten, ikusten baitute titikoen mailan hasita nagusien arte euren egon diren hurrek nolako garapena izan duten: “Ikusten dugu izugarritzko aldea dagoela gurekin titikoen gelatik dauden





haurren eta geroago hasi diren haurren artean. Mugimenduari eta hizkuntzari dagokienez nabaritzen dugu hori batez ere. Mugimendu garatuagoa dute, hizkuntza aberatsagoa, eta konplexutasun handiagoko mugimenduak nahiz esaldiak egiteko gai dira. Nik benetan uste dut eskolak familiak eskaini ezin dituen hainbat gauza eskaintzen dituela. Egia da talde-bizitza hain txikitatik ez dela egokiena, baina, azken finean, gaur egun amatasun-bajak 4 hilabete irauten du, horixe da errealitatea”.

Espazioen antolaketa eta espazio horietan dagoen materiala nahiz lan-tegiak behin eta berriz aldatzen eta moldatzen dituzte Kattuka haur-eskolan. Haurren nahi eta interesetan oinarritzen dira horretarako. “Ikusten badugu haurrek interesa dutela material batekin, igual lantegi bat antolatzen dugu material hori erabil dezaten, eta ikusten badugu aspertu egin direla, kendu egiten dugu. Horretan irekiak gara, eta material-aukeraketan ere bai”. Egituratu gabeko materiala erabiltzen dute beti. Haur-eskolan bertan biltegi handi bat dute, eta noizbehinka haurrak biltegi horretara eramaten dituzte, nahi duten materiala aukeratu eta gelara eraman dezaten: “Ez da eskola librea, gainerakoan guk dauzkagun hainbat antolaketa modu ezingo bailirateke egin, baina saiatzen gara umeen erabakitzeko eskubidea kontuan izaten une eta maila guztietan, hala nola materiala aukeratzeko, fardelak aldatzerakoan, jangelara lehen edo bigarren txandan joan erabakitzerakoan, lantegietara mantalarekin edo mantalik gabe joan erabakitzerakoan, etab.”.

Prestakuntzaren garrantzia

Lantalde egonkorra eta motibatua da Kattuka haur-eskolakoa. Hezitzaileen artean hausnarketa nahiz esperientzia asko partekatzen dituzte, eta taldean egiten dute lan. Euren eguneroko jardunean aurrera ahalik eta modu egokienean egin eta uneoro egokitu ahal izateko gakoa, ordea, etengabeko prestakuntzan dagoela uste dute hezitzaileek. Inbertsio handia egiten dute urtero langile taldearen prestakuntzan, eta horrek bere fruituak ematen dituela uste dute: “Prestakuntza jasotzen dugu lehenik, ondoren horren gaineko hausnarketa egiten dugu bakarka nahiz taldean, eta, azkenik, gure funtzionamenduan eta antolaketan aldaketaren bat sartzea beharrezkoa dela ikusten badugu, sartu egiten dugu, eta, gero, horren gaineko balioespina ere egiten dugu”, esplikatu du Gardek. Berak sekula ez du hezkuntza-praktika ordutegi baten barnean hauteman, eta ez du ulertzen hezitzaile batek, arratsaldeko 16:30ean lanetik ateratzean, nola utz diezaiokeen hezitzaile izateari, “Hezitzailea hezitzaile da gau, egun eta asteburu”.

Ezkutatzeo ezer ez

Guztiaren artetik, agian, familiekin gatazka gehien sortzen duena siestaren kontua da. Baina familiekin harremana asko lantzen dute, eta saiatzen dira haiei beste ikuspuntu bat eskaintzen. Izan ere, Kattukan familiei irekita daude erabat, ez daukate ezer ezkutatzeko. Haurrek zenbait ordu ematen dituzte eskolan, eta familia askoren kezka izan ohi da euren seme-alaben eskolako jarduna: “Zertan ariko ote dira eta nola egongo ote dira gurekin ez dauden tarte horretan?”. Zalantza horrek sor dezakeen mesfidantza saihesteko, ahalik eta gardentasun handienarekin jokatzeko ahalegina egiten dute Kattukan, eta ateak beti zabalik izaten dituzte. Haurbaten amonaren kasua ekarri du

gogora Larrionek: “Etxarri Aranazkoa zen andre hura, eta ia egunero paseoan etortzen zen honaino. Gu konturatu ginen haurra ikusi nahi izaten zuela, eta bera guri ezer eskatzera ausartzen ez zenez, egun batez ea sartu nahi zuen galdetu genion. Harrituta geratu zen. Kafea ere eskaini ohi genion, eta ea ume arifardela aldatu nahi ote zion galdetu. Hasierako mesfidantza erabat apalduz joan zen, eta, azkeneko, haren konfiantza osoa irabazi genuen”.

Gardentasunez jokatzear gain, familien eta eskolaren arteko harremana lantzeko beste hainbat alderdi ere kontuan izaten dituzte Kattukan. Sekulako esfortzua egiten dute, adibidez, haurren harrera egokia eta umeentzako ahalik eta goxoa izan dadin. Protokolo eta epe batzuk zehaztuta dituzten arren, haur eta familia bakoitzaren beharretara egokitzen dira, “batek hamabost egun nahikoa baditu, ongi, eta beste batek hiru hilabete behar baditu, bada, denbora hori errespetatzen da”. Iaz, haurrei harrera egiteko, lehendik haur-eskolan zebiltzan umeak eta haur berriak nahi egin zituzten, hasiberriak zaharrek ere errazago egokituko zirela pen-





tsatuta; konturatu ziren, ordea, batzuen eta besteen beharrek ez zeukatela zerikusirik. Horrexegatik, aurten, haur-eskolan lehenetik zebiltzan ikasleen harrera eta haur berriena bereizita egin dituzte, eta aldagaterekin asmatu dutelakoan daude: “Nola zaharren hala berrien harrera hobe izan dela uste dugu”.

Gainera, irailean harrera-fasea hasi aurretik, uztailean, haur berrien gurasoekin bildu ziren hezitzaileak, banaka, familia bakoitzari behar zuen denbora eskainiz elkar ezagutzeko. “Aurrez familia guztiekin batera bilera bat egin genuen uztailean, baina han sekulako zurrumbiloa sortzen zen. Horregatik, aurten familia bakoitzarekin banaka elkartzearabaki dugu, eta funtzionatu du. Atsegina izan da lehen kontaktu hori, eta gurasoek ere eskertu dutela uste dugu”. Baina hasierako bilera eta harrera-fasetik haratago, egunerokotasunak ematen die hezitzaileei eta gurasoei elkarrekin egoteko aukerarik handiena. “Haurren familiakoekin egunero egoten gara, batzuek di-da egiten dute hemengoa, baina beste batzuek denbora gehiago hartzen dute eta gurekin hitz egiten dute. Hori oso aberasgarria da”.

Gurasoekin harremanetan egoteko eta eskolan egindakoa haiei erakusteko beste baliabide bat ere badute Kattukan: egunerokoa, hain zuzen

ere. Koaderno horretan, egunero gelan egindakoa eta gertatzen diren gauza bereziak jasotzen joaten gara. Eta astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan haurrek etxera eramaten dute, txandaka: “Sarritan eskolatzearekin daukagun kezka nagusia da ez dakigula haurrek zer egiten duten eskolan daude bitartean. Hortaz, egunerokoa une horiek islatzeko bitarteko bat iruditzen zaigu”.

Berriketaldiak eta beste

Kattukako haurren gurasoak eskolako ekintzetan oso inplikaturik daudela diote hezitzaileek. Urtean zeharreko ekintzak antolatzen parte hartzeaz gain, hainbat material edota lantegi prestatzen ere laguntzen dute; edota euren ekimenez txangoak nahiz eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzte, Larrionek azaldutako eran: “Adibide bat jartzearen, guraso bat abeltzaina da, eta, iaz, larunbat batez bere lanbidea erakusteko bisita antolatu zuen etxaldera. Egun itzela pasa genuen”.

Haur-eskolak ere jartzen du bere alea familiei nahiz komunitate guztia-ri begira. Izan ere, berriketaldiak antolatzen dituzte haurren zaintzarekin lotura duten hainbat gairen inguruan, hala nola: loa, mugimendu autonomo askea, esfinteren kontrola, haurren erregresioak... Gaiak zerrendatzen dituzte eta gurasoei pasatzen diz-

kiete, zein lehenesten dituzten galde-
tzeko. “Saio horiek eskolan bertan
egiten ditugu, eta geu lantzerantz
ez garen gairen bat badago, kan-
poko adituren bat ekartzen dugu.
Saioak irekiak izaten dira, eta ikusi
dugu nahiko arrakasta ari direla izat-
en”, argitu du Gardek.

Horrez gain, euren informazioa
eta eskuratuz doazen jakintza parte-
katzeko helburuarekin, haurrengan
eragina duten beste hainbat kolekti-
bo edo profesionalekin ere kontak-
tuan daude Kattukako hezitzaileak.
Pediarraren kasua kontatu du Gar-
dek: “Pediarrak gurasoei esaten zien
lau hilabeterekin haurrak esertzen
has zitezkeela, kuxinak alboan jarrita.
Eta gurasoek guregana jotzen zuten
esanez guk gauza bat esaten geniel
eta pediarrak kontrakoa. Hala, pedia-
rrarekin hitz egin genuen, mugimen-
du librearen inguruko informazioa
pasa genion eta benetan eskertu zi-
gun. Jada ez du horrelako gomendio-
rik egiten. Orain, ginekologoarekin
ere harremana lantzen hasi nahi ge-
nuke, badakigulako erditzeak nola-
ko eragina izan dezakeen haurren-
gan. Azken batean, jasotzen dugun
informazio guztia besteekin parteka-
tu nahi dugu”.



ekarpenak

EUSKAL UDALEKUAK

Uda nahiz negu, auzolana helburu

Udalekuetako betekizuna ez da astebete edo hamabost egunez monitore lanak egin eta amaitzen, ez behintzat Euskal Udalekuetan. Udako egonaldia antolatzeaz gain, urtean zehar beste hamaika zeregin ere izan ohi dituzte Abaigar, Goñi eta Bernedoko udalekuetan. Gazte nahiz heldu, asteburuetan elkartu eta paretak pintatzen, zuhaitzak kimatzen edota garbiketara lanetan aritzen dira, auzolanean.



1965. urtera jo behar da gaur egun Euskal Udalekuak izenez ezagutzen diren udalekuen jatorria ezagutzeko. Urte hartan Gipuzkoako ikastolen arduradunek eta irakasle batzuek “Udalekua” izenpean udako kolonia bat antolatu zuten Barriako monasterioan. Helburua, hurrei udan ere euskaraz aritzeko leku bat eskaintzea. “Kontuan izan behar da, garai hartan ikastola ugari ari zirela sortzen eta haurrak euskaraz eskolatzen baziren ere, zenbait hiri-gunetan erdara zela nagusi eta udako oporraldian haur batzuek euskaraz hitz egiteko erraztasuna galdu egiten zutela”, dio Aritz Larreta Euskal Udalekuetako kideak. Kolonia hartan euskara baizik ez zuten erabiliko harreman, jardun eta ekintza guztietan.

Beste ezaugarri bat ere bazuen orain dela 50 urte inguru sortutako udaleku hark: antolaketa nahiz hezi-

tzaile lanetan ibili ziren guztiak bolutarioak ziren. Euskal Herriko haurrak euskaraz hazteko eta hezteko idealak bultzaturik musutruk eta modu autogestionatuan, udalekua arrakastaz egitea lortu zuten eta gaur eguneraino izan du jarraipena. Barriako esperientziaren ondoren, Ozaetan ere antolatu zuten udalekua eta 1969ko udan baita Deban eta Saturraranen ere. Ikastolako ikasleei ez ezik, udan egonaldia euskaraz egin nahi zuten gainontzeko ikastetxeetako ikasleei ere ateak ireki zizkieten hala eta “Euskal Udalekuak” izena jarri zieten berri haiei. Ondoren, Beire eta Goñiko, Abaigarko, Antzin eta Urdirotzeko zein Bernedoko ekimenak etorri ziren. Uneotan, Abaigarren, Goñin eta Bernedon antolatzen dira Euskal Udalekuak.

Denborak aurrera eginagatik, hasierako bi zutabe nagusiak –euskara



eta auzolana- bere horretan mantendu dira Euskal Udalekuetan. “Batzuek eguneko ordurik gehienetan euskaraz bizitzeko aukera dugu, baina egoera horretan ez dagoen jende asko dago. Gure udalekuetan Euskal Herri osoko haurrak elkartzen dira eta eguneko 24 orduetan euskaraz aritzeko eta euskal kulturaren bizitzeko parada dute”. Ez dio axola mailak, baina Euskal Udalekuetan izena emateko irizpideetako bat euskaraz jakitea da. Erdarara jotzeko arriskua saihestu nahi dute hala eta haurrak udalekuan igaroko duten denbora osoan euskaraz biziko direla bermatu.

Euskal Udalekuek hainbat urtez funtzionatu badute, auzolanari eta borondatezko lanari esker izan da. Uneotan, Abaigarren, Goñin eta Bernedon urtero 150 bolondres inguruk hartzen dute parte antolaketa, kudeaketa, hezitzaile edota mantenu lanetan. “Gurea ez da udan hamabost egunean lan egin, kobratu eta ahaztu. Askoz ere parte-hartze eta inplikazio handiagoa eskatzen du”. Eta hala xe egiten dute, dirurik ez, baina asebetetasun handia ematen baitie partaide gehienei Euskal Udalekuetan jarduteak.

Larretak adierazitako moduan, 17-18 urte ingurutik hasi eta 30 urte



ingurura arteko gazteak aritzen dira antolaketa eta hezitzaile lanetan: “Jende aktiboa eta arduratsua izan ohi da, euskaltzalea eta haur eta gaztetxoekin gozaten duena”. Udalekuei esker lagun asko egin dituela gaineratzen du, eta bizipen politak dituela: “Sentsazio intentsuak dira, oso aberasgarriak. Umeekin lortzen dugun konplizitateak eta haien esker onak ere asko betetzen du”.

Urte osoko lana

Udan haurrak iristen direnerako dena prest izaten dute Abaigarren, Goñin eta Bernedon; baina horretarako, urte osoan zehar izaten dira zereginak. Hiru udalekuek hainbat lan elkarrekin egiten badituzte ere, –hala nola, matrikulazio kanpaina, txandaren antolaketa edota autobus zerbitzua kontratatzea–, etxe bakoitzak autonomia du bere jardueraren antolatzeko. Larretak azaldu bezala, gainera, etxe bakoitzean hiruzpalau txanda egiten dira eta txanda bakoitzeko kideen artean ekipoak osatzen dira. “Koordinaziorik estuena ekipo bakoitzeko partaideen artean egoten da, baita etxe bakoitzeko txandetako arduradunen artean ere. Azken egitekoa, txanda guztien artean, etxea aurrera ateratzea da”, dio Larretak.

Udalekuko egonaldia amaitzen denean, etxe bakoitzeko txandetako arduradunek balorazioa egin eta hurrengo urtera begira izan ditzaketen beharrak eta hobetu ditzaketen alderdiak idendifikatu, lehentasunak markatu eta lanak banatzen dituzte. Horrez gain, urtean zehar etxearen mantenu eta hobekuntza lanak ere egin behar izaten dira: konponketak egin, ingurua txukundu, gabiketa lanak egin... “Urtean zehar, gure denbora librean elkartu eta auzolanean

aritzen gara paretak pintatzen, teilatua konpontzen, belarra moztzen... Egin beharreko guztia gerok egiten dugu. Uneotan udalekuan boluntario modura ari garenok ez ezik, garai batean ibilitakoak ere etortzen dira laguntzera. Pentsa, euren lanetik erretiroa hartutako jendea eta guzti elkartzen gara. Benetan pozgarria da hemendik pasatakoak oraindik ere udalekuaren parte sentitzen direla ikustea”.

Eskulanaz gain, udalekuaren funtzionamendu egokirako beharreko bestelako zereginak ere kontuan hartu behar direla dio Larretak, baita sukaldea egokitzea, janaria erostea, botikina prestatzea, gas eta ur hornidurak, etab. ere. “Horrez gain, txanda bakoitza ere txukun prestatu behar izaten da: egun bakoitzeko ekintzak, ekintza bakoitzerako beharreko materialak, arduen banaketa... Dena gure esku dago eta detailerik txikienak ere lana eskatzen du. Autogestioan eta autoantolaketan oinarritutako udalekuak dira gureak”.

Euskal Udalekuen bizkarrezurra euskara bada ere, denborak aurrera egin ahala beste printzipio batzuk ere oso kontuan izaten dituzte egunero jardunetan, besteak beste, euskal kultura ezagutaraztea eta haren aberastasunaz ohartaraztea, kulturartekotasuna garatzea, ingurunea errespetatzea eta zaintzea, hezkidetzak sustatzea eta ororen gainera, ondo pasatzea. Larretak aipatutako eran, aurrera begira erronka berriak ere badituzte: “Abaigar, Goñi eta Bernedo, hiru udalekuen arteko koordinazioan sakondu nahi genuke, estrategia bateratu bat egin. Komunikazioan ere badugu zer hobetua eta horretan ere indarrak jarri nahi ditugu eta horrexegatik jo dugu *Hik Hasi*-ra”.

Zer garrantzia du literatura heziketak eta zein dira horren gakoak



Literaturaren irakaskuntzaz jardutean, batik bat irakurzaletasuna izan ohi da hizpide gaur egun, eta ikasleak irakurketara zaletzeko bideak dira eztabaidagai. Alabaina, Ur Apalategik (2011) ohartarazi bezala, irakurzaletasuna eta literaturazaleatasuna ez dira gauza bera: azken batean, irakurketa literarioa irakurketa-modu askoetarikoa bat baizik ez da. Heziketa literarioak, bada, literarioki irakurtzeko gaitasunak izan behar ditu jomugan (Jover 2008).

Literaturaren funtzioen inguruan gogoeta egiteko Joseba Sarrionandiak *Hitzen ondoeza* (Txalaparta, 1997) libururako idatziriko bi sarrera ekarriko ditugu gogora. Batetik, "Haur literatura" sarrera azaltzeko erabiltzen dituen zehaztapenak, eta bestetik, "Irakurtzea" definitzeko erabilitako adierazpenak. "Haur Literatura" sarrerak honako hau dio:

"HAURLITERATURA

Sehaska kanten ondoren, haur literatura hiru motatakoa izan daiteke:

- Haurrari lo eginarazteko
- Haurrari amets eginarazteko
- Haurra ernarazteko

Sailkapenak, helduentzako literaturarentzat ere balio du".

Joseba Sarrionandia, *Hitzen ondo-*



Iratxe RETOLAZA

EHU-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

eza (Txalaparta, 1997)

Sarrera horretan agertu bezala, literaturari hiru funtzio egotzen dizkio Sarrionandiak: loaraztea, amets eginaraztea, eta ernaraztea. Batzuetan, loarazi egiten gaituzte, irakurketak eta irakurbideak ikasgaraziz, baita testuen irakurketak instituzionalizatuz ere. Beste batzuetan, ordea, irakurketa kritiko eta askerako bideak eskuratzen ditugu, eta kasu horietan, literatura bada amets egiteko bide, eta ernarazteko bide. Azken horren alde egiten du batez ere Sarrionandiak "Irakurtzea" sarreraren diogenari kasu eginez gero:



Amaia SERRANO

HH ETA LH-KO IRAKASLEA ETA EHU-KO DOKTOREGAIA

"IRAKURTZEA

"Munduko gauzak irakurtzen ditugu, letrak irakurtzen hasi baino lehenago" (Paulo Freire)

"Irakurtzea arriskatzeta da. Garena eta duguna babesik gabe uztea" (George Steiner)

"Idazten dudalarik, idatzi egiten naiz. Irakurtzen duzularik irakurri egiten zara".

Joseba Sarrionandia, *Hitzen ondoeza* (Txalaparta, 1997)

Ondorioz, Joseba Sarrionandiarentzat irakurtzea nork bere buruaren eza-gutzan sakontzeko bidea da, ikuspegi ezberdin gehiagotarako bideak egi-

nez, eta mugak zabalduz. Jakina, heziketa literarioak ez luke loaraztea izan behar xede, ez eta amets eginarazte hutsa ere. Literatura ez da nork bere burua ezagutzeko bide huts, bada ere imajinario kolektiboa (Jover 2008) eta kode kultural zenbait ezagutzeko modua (baita haiek auzitan jartzeko tresna ere). Zentzu horretan, aurretik aipatu dugun gisan, heziketa literarioak ernarazi egin behar du, nahiz eta azken aldian, irakurzaletasunaren bidetik, plazeraren eta gozamenaren ideien aldeko jarrera den nagusi, “loaraztetik” eta “amets eginaraztetik” hurbilago dena.

Irakurketa literarioan trebatzeko hizkuntza-kode eta genero-kode berezitu batzuetan gaitu behar dute ikasleek. Hona hemen komunikazio literario horren giltzarrietariko batzuk:

a) Mundu ikuskerak: balio estetiko eta literarioak aldakorak direnez –historikoki zein kulturalki–, literatura-lana kritikoki jasotzeko –eta literatura-lanean eraikitako mundu ikuskera identifikatzeko– ezinbestekoa da testuinguru kulturala eta soziopolitiko kontuan hartzea. Ildo horretan, testu literarioak gizarte-gaien inguruan hausnarketa egiteko bide ere badira.

b) Testuartekotasuna: zenbait testu literarioetan eginiko aipuak, erreferentziak edo keinuak ulertzeko, irakurleak (edo hartzaileak) testu literarioen arteko zubiak eraikitzeko tresnak barneratzea bereziki garrantzitsua da.

c) Mundu sinbolikoak: irakurleak (edo hartzaileak) testu literarioetan proposaturiko sinboloek jabe daitezenean, literatura baliabideak identifikatzeko eta interpretatzeko lanabesak garatu behar dituzte.

Euskal literaturaren kasuan, gainera, bereziki azpimarratzekoa da irakasleak literarioak irakurtzeko gaitasuna landu behar duela. Sarri askotan aipatu izan den moduan, literatura-testuen irakurketa gehienetan hizkuntza trebatzeko erabili ohi da, eta ez literarioak irakurtzen gaitzeko. Harkaitz Zu-

birik (2013) egin berri duen euskal irakurlearen erradiografiari erreparatuta, literaturazale elebidunek joera gutxiago dute euskaraz literatura irakurtzeko (kopuru hori, aldiz, beste irakurketa-modu batzuetan ez da hain nabarmena: esaterako, prentsa irakurtzeko ohi-turan). Alegia, eskolak eta gainerako kultur erakundeek ez dute asmatu euskal literaturaren transmisio egokia egiten. Komeni da, beraz, euskal literatura irakasteko moduez eta bidez hausnarketa zenbait egitea. Artikulu honetan, komunikazio literarioaren hiru ardatz horiek lantzeko proposamen batzuk eskaintzea da gure asmoa.

1. Mundu ikuskerak eta ibilbide literarioak

Ibilbide literarioak espazio fisiko-geografikoarekin lotzen du abstraktua goa eta imajinarioa den espazio literarioa: ingurunea baliatuz literatura lantzea du helburu. Irtenaldi literarioen bitartez ikasleak ohiko komunikazio-egoeratik aldenarazi eta testuinguru komunikatibo berrietara hurbilartzeko ahalegina egiten da, eta irakurketa-rako testuinguru berriak sortzen dira (Jover 2008). Herri edo hirietako kaleak, tabernak, liburutegiak, dendak, euskaltegiak... Edozerk balio dezake, baldin eta literaturarekin zerikusi zuzena badu. Hala, ikastetxea kokaturik dagoen herri edo hiriak literatura nola baliatu duen ikus dezakegu: kaleak izendatzeko, monumentu batez idazle bat omentzeko, obra baten izenburuarekin denda bati nortasuna emateko etab. Espazio geografikoak esango digu zer zentzutan bizi den literatura gure artean, eta hori mundu ikuskerak lantzeko jarduera ezin hobea da.

Baina zer egin dezakegu irakasleok horrekin? Bada, ingurune hori heziketa literarioak aprobeztatu. Ibilbide literarioak aukera asko eskaintzen dizkigu: alde batetik, normalean lekuan lekuko idazleen izenak hartzen dituzte kaleak eta, beraz, herrian jaiotako idazleen berri jakiteak espazioarekiko lotura estuagoa ahalbidetzen du. Kalea

gure sentitzen laguntzen digu. Hain zuzen ere,² sentimendu hori baliatu dezakegu idazle horien obretara gerturatzeko. Gainera, posible izan daiteke testu horietan herriko edo idazlearen garai-ko ezaugarriren bat topatzea, zeinak lagun diezagukeen obra hobeto interpretatzen. Halako proiektuen adibideak aurki ditzakegu Saturnino de la Peña Sestaoko institutuan edota Mungiakoan.

Gure herriak ibilbide bat egiteko adina eskaintzen ez badigu, baina, zer egin dezakegu? Mungiako institutuan, esaterako, idazle bati eskaintako kale bakarra zutela ohartu ziren (Lauaxetari eskainia). Horrekin ibilbide bat osatzea ezinezkoa zenez, haren biografiari nahiz testuei loturiko espazioak bilatu zituzten. Esan nahi baita, ibilbideak markatzeko hainbat modu daude, eta horietako bat obra literarioan bertan agertzen diren lekuak baliatzea da. Euskal literaturan bada non arakatu: Saizarbitoriaren *100 metrok* Donostian zehar bidaiatzeko aukera ematen digu, Gabriel Arestik XX. mendeko Bilbotik ibiltzeko gonbita luzatzen du, Xabier Montoiak Gasteizko kaleetan barna garamatza *Gasteizko hondartzak* eko ipuinetan, Jokin Muñozen *Atlantidara biak* gida aparta izan daiteke Nafarroan zehar osteratxo bat egiteko, eta Itxaro Bordaren Amaia Ezpeldoi pertsonaia literarioa lagun Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa Behereko hainbat txoko ezagutu ditzakegu; batzuk aipatzearen. Narrazioez gain, beste genero literarioak ere erabil ditzakegu asmo berberaz: esate baterako, Unai Iturriaga eta Alex Sanviren *Udaberririk Ankerrena* komikia, zeinak Durango baitu kokaleku. Modu horretan, literatura erabilgarririk egiteaz gain, geografiara eta historia-
ra ere hurbiltzen gara, zehar-lerroak sortuz.

Aipatutako ibilbideak irakasleak gida ditzake, baina ibilbide literarioak beste era batera ere planteatu daitezke, izan ere, espazioak birsortzeko aukera ematen digute: leku geografiko horiek

¹ Hezkuntza sistemak literaturaren irakaskuntzaren bitartez gozamen hutsa helburu izatea kritikatu du Ur Apalategik (2011).

² Donostian, esaterako, antzerkigile zenbaiten izenak dituzte plaza eta kale batzuek: Toribio Altzaga, Marcelino Soroa... Hiri horrek euskal antzerkigintzan izan zuen eraginaren lekuko.

³ Ikus “Callejeros literarios” proiektuaren webgunea.

testuekin, abestiekin edota poema musikatuekin lotzeko eskatu ahal diegu ikasleei, gune bakoitzak zer iradokitzen dien adieraz dezaten.

2. Testuartekotasuna eta ibilbide tematikoak

Ibilbide tematikoek beste noranzko bat dute, irakurleei liburuaren edo irakurketen arteko loturak egiten irakastea baitute helburu. Liburu batetik abiatuta ate gehiago irekitzen dituzten bideak dira. Alegia, obra bat abiapuntu hartuta beste lan batzuetara jauzi mota ezberdinak egiteko balio digute:

a) Idazlearen obren arteko loturak: idazle baten lan batetik bestera zubiak eraikitzea ez da zaila: pertsonaia antzekoak, gertalekuak, istorioen gaiak, paratestuak... Gainera, izan badira mundu literario propioa sortu duten idazleak (Atxagaren "Obaba", kasu).

b) Gaiaren araberako loturak: literatur testuak lantzeko bide emankor bat gaika eginiko irakurketak dira. Askotariko gaiak izan daitezke. Hona hemen multzorik erabilienak:

-*Gertakari historikoak:* Gernikako bonbardaketa, Sarajevo ko setioa...

-*Gai filosofiko, antropologiko edota sozialak:* maitasuna, heriotza, gorputza, bikote-harremanak, amatasuna/aitatasuna, belaunaldiak...

-*Gai literarioak edota kulturalak* (mitoak edo motibo literarioak): Peneloperen mitoa, Holandes herratuen mitoa, Don Juanen mitoa...

Gaiaren araberako geltoki horiek, aldi berean, beste irakasgai batzuetarako zehar-lerroak eraikitzeko aukera ematen dute (Historia, Filosofia, Arte...).

c) Aipu-katea: obretan azaltzen diren aipu literarioen araberako ibilbide literarioa osa daiteke, eta modu horretan, lan horien arteko harremana interpretatzeko jarduerak proposatu. Irakurgai irakurgai saltoka ibiltzeko irizpidea irakasleak erabaki dezake. Irakurgaien hautaketa, aldiz, bi modutara egin daiteke: irakasleak berak irakurketa-ibilbide hori egiteko obra-multzoa proposatu ala ikasleei askatasuna eman eta, emandako irizpidea erabiliz, irakurgaiak bila ditzatela, nor bere ibilbidea

osatu. 12-16 urteko ikasleekin lan egiteko ibilbide gidatuak dira egokienak, eta ibilbide askeak 16-18 urteko ikasleekin egin daitezke, ordurako ibilbide gidatu zenbait burutu dituztelarik eta ibilbideak sortzeko irizpide eta aukez jabetu direnean.

3. Mundu sinbolikoak eta literatur lantegiak

Literatur lantegiek ikaslearen sormena lantzea dute helburu, eta baita begirada sinbolikoak lantzea ere. Víctor Morenok (2008) adierazi bezala, imitazioa eta berridazketa sormena lantzeko jarduera egokiak dira, bi urrats eskatzen dituztelako: lehenik, abiapuntuzat harturiko obraren interpretazioa garatu behar du ikasleak; eta ondoren, interpretazio hori bere egin eta modu sortzailean transmititu (Moreno 2008). Hona hemen sormena lantzeko erabil daitezkeen bideetariko batzuk:

a) Testu literarioa irudi bihurtzea: poema bat edo narrazio bat hartuta, ikasleek fotopoema bat edo fotonarrazio bat egin edota komiki egokitzapen bat sor dezakete.

b) Testu literarioa bideo bihurtzea: poema bat edo narrazio bat abiapuntu izanik, ikasleek bideo poema bat edo bideo narrazio bat osa dezakete.

c) Literatura eta collagea: hainbat testu literario hartu eta collage bat egin dezakete ikasleek, testu berri bat osatuz.

4. Azken hitzak

Literatura irakasteko planteatu ditugun bide horietan sakondu aurretik, baina, ezinbestekoa da komunikazio-testuingurua kontuan hartzea, alegia, ikasleen profila; eta proiektua ikasleen ezagutza-maila horretara egokitzea. Víctor Morenok dioen moduan (2008), egokitze hori egiten errazagoa da orainalditik abiatuz (egungo adierazpide literario hurbilekoetatik) eta, ondoren, pixkanaka begirada historikoa landuz. Halaber gogorazten digu Roger Chartier-ek (2008) egun ikus-entzuzko kultura eta interneteko unibertsoa ezagutzen dituen irakurlea izan behar dugula buruan (Chartier, 2008);

eta baita ahozko kultura ezagutzen duen irakurlea ere. Hasierak horixe izan behar du, adierazpide horietatik idatziranzko zubiak egiteko. Horregatik, oso garrantzitsua da testu literarioen hautaketa egiterakoan zertarako erabiliko diren argi izatea (Moreno 2008). Beraz, corpusak malgua izan behar du, ikasleen eta taldearen beharrei erantzuteko (Moreno 2008).

Azken batean, ikasleak irakurle autonomo bihurtzea izan behar luke helburu hezkuntza sistemak (Jover 2008; Moreno 2008), eta horretarako nahikoa gaitasun literario eskaini behar lituzke. Horiek gabe zaila baita literaturaz gozatu ahal izatea, baina, are zailago pentsamendu eta irakurketa kritiko autonomorako gaitasunak garatzea. Ikasleei lerro-artean irakurtzen irakatsi behar zaie, begirada sinbolikoak antzemateko tresnak emanez eta, horrekin batera, literatur obra jakin baten aurrean sentitu dutena adierazteko baliabideak eskainiz, komunikazio literarioak subjektu artekotan horretan baitu funtsa.

BIBLIOGRAFIA

Apalategi, Ur (2011). "Irakurzaletasuna hezkuntza sistemaren helburu?", *Egan* 3/4, 99-119.

Chartier, Roger (2008). "Aprender a leer, leer para aprender", in José Antonio Millán (koord.), *La lectura en España. Informe 2008*, 23-42.

Hainbat autore, (2010-). "Callejeros literarios" (proiektua). Online: <https://sites.google.com/site/callejerosliterarios/> [kontsulta: 2014-01-23]

Jover, Guadalupe (2008). "Se está haciendo cada vez más tarde (Por una literatura sin fronteras)", *Textos literarios y contextos escolares. La escuela en la literatura y la literatura en la escuela*, Graó: Bartzelona.

Moreno, Víctor (2008). "Literatura para ser leída, imitada y transformada", *Textos literarios y contextos escolares. La escuela en la literatura y la literatura en la escuela*, Graó: Bartzelona.

Zubiri, Harkaitz (2013). "Euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren aztergai. Soziolinguistikako datuetatik eta irakurketa-ohiturei buruzko ikerketetatik abiatuta", *Uztaro* 87, 2013ko urria-abendua, 51-68.


argitalpenak



Erlantzen izarra
B. Ibarrola / X. Salomo

ELKAR

Kristalur izeneko planeta batean bazen izarrekin hitz egiten zuen herri bat. Haur batek zazpi urte betetzen zituenean izar bat aukeratu eta harekin hitz egiten ikasten zuen. Erlantz urduri zegoen. Gau hartan bere urtebetez festa egingo zuten eta izar bat aukeratu behar zuen. Sentipuinak bildumako 11. liburua da. •



Gure mundua ulertzeko fitxak
Ekain Mtz. Lizarduikoa eta
Alizia Stürtze

GAIK

Mundua konplexua da. Inork aurreikusitako ez dituen aldaketak gertatzen dira eta, askotan, nekez ulertzen ditugu horien zergatiak. Azalpen argiak, mapak eta hainbat proposamen didaktiko lagun, mundua ulertzeko gaikoak eta interpretaziorako tresnak eskaintzea du xede liburua. •



Habiak
Dejabu panpin laborategia /
Maite Gurrutxaga

TXALAPARTA


Simon zaharraren eta Selmaren arteko harremana da komiki-liburu honen ardatza. Abiadura handiko tren bere lurretatik pasatzen dela eta, biserria galdu du Simonek. Selma, berriaz, erizain bosniarra da, Balkanetako gerra atzean utzi ostean Euskal Herrira iritsia. •



Smara
Paula Carballeira / Carole Henaff

PAMIELA ETA KALANDRAKA

Ume batek Saharara egindako bidaia baten historia da. Bidaia horretan amona Ugago ezagutuko du gaztetxoak. Hiria arrotz sarkinetatik babes-teko gaitasuna izan duen azti ahaltzua da Ugago. Bere herriaren istorioak eta Hodeien seme-alaben istorioak kontatuko dizkio gaztetxoari, elezahar eta kondaira ugari. •



Saba eta landare magikoa
Yann Degruel

TTARTALO

Saba eta Abisiniako ahuntzaren istorioa kontatzen du. Ahuntzak alde egiten zuen goizero herrixkatik, eta horietako batean Sabak atzetik jarraitu zion eta mendi punta batera iritsi ziren. Ahuntzaren sekretua ezagutu zuen orduan: landare miragarri bat zegoen mendi puntan eta hura dastazera joan ohi zen. •



Donostiarrok harriz harri
Koma Zerbitzu Kulturalak /
Kometa

DONOSTIAKO UDALA

Lankidetzaz sustatzeko jolasa da: orain berrehun urte donostiarrek elkar laguntzeko erabili zuten dinamika bera du oinarrian. 1813ko abuztuaren 31n Donostia erre zuten tropa frantsesek, eta hiri osoa –egun Abuztuaren 31 kalea dena izan ezik– guztiz suntsituta gelditu zen. •

hik hasi-ren proposamena

ANTZEZLANA

Gorila baten lezioak

'Kibubu' obra estreinatu du Marie de Jongh konpainiak, errespetuaren eta askatasunaren aldarria egiten duen antzezlana

Marie de Jongh konpainiaren laugarren proiektua da 'Kibubu', Jokin Oregik idatzi eta zuzenduriko antzezlana. Publikoaren eta kritikaren onespena jaso zuen aurreko obra hura bezala –*Alabatxo!*–, hitzeko elkarriketarik gabeko antzezlana da Kibubu, keinuen bidezko dramaturgia lantzen baitu. Oraingo honetan, Coco eta Xebas klown artistak eta gorila bat dira protagonistak (Tomas Fernandez Alonso, Ana Meabe eta Javier Renobales aktoreak).

Coco eta Xebasek zirku bat egin nahi dute. Ilusioa sobera dute bai, baina arrakasta ekarriko dien zera hori falta dute oraindik. Bikote artistikoa ikuskizun berria prestatzen ari dela, Xebasek ideia bat izango du: gorila bat ekarriko dute, horrek ekarriko baitizkie hainbeste desiratzen dituzten txaloak.

Hirugarren eskuko gorila zigortu bat erosten du Xebasek, *Kibubu* ize-nekoa, eta entsegu-lekura eraman eta



ikuskitzen artistikoa bat egin ahal izateko, gutxieneko teknikak irakasten hasten zaio. Coco ez dio zentzurik ikusten gorila bat erosteari, eta Xebas bakarrik utziko du, animalia otzandu eta etxekotzeko ahaleginean. *Kibubu* bera ere ez da ongi sentitzen egoera horretan, aske bizitzeko jaioa izaki, kartzela batean bezala sentitzen baita entsegu-lekuan.

“Antzezlan hau errespetuaren eta

askatasunaren aldeko aldarria da, batez ere animaliekikoa”, adierazi du Oregik. Hasiera batean ikusleen txaloak jasotzeko helburuz erositako gorilak, azkenean, inoiz ahaztuko ez duten irakaspena emango die klown artistei. Komedia tonuan, hausnarketarako hainbat gai planteatu nahi ditu zuzendariak obra honen bidez. “Gai nagusia askatasunari eta errespetuari loturikoa da, baina beste hainbat go-

goetagai ere zabaltzen ditu; besteak beste, hezkuntzari buruzko galderak ere jarri nahi ditugu mahai gainean: nola hezi nahi dugu pertsona bat, zigorra eta indarra erabiliz ala maitatuz?". Ikuskizunean zuzenean entzun ahal izango den pieza batek, *Txoriak Txori*-k, hainbat arrasto ematen ditu egileen ikuspuntuari dagokionez. Ikuskizun honek galderak planteatzen ditu, eta, ondoren, ikusleak etxera edo ikastetxera joan daitezten eta erantzunak bilatzeko gogoeta eta elkarriketa egin ditzaten gonbidatzen ditu zuzendaria.

Hitzik gabeko antzezlan izanagatik ere, gogoeta eta hunkipena eragiten dituen antzezlan da *Kibubu*, egilearen esanetan. "Umorea baduen arren, une gordinak ere baditu", azaldu du Oregik. Horregatik, 6 urtetik gorako pertsonentzat ikusten du aproposa zuzendaria lan hau. "Ez dugu esaten haurrentzako obra bat denik, haurrekin doazen helduentzat ere interesgarria eta gustagarria izan dadin saiatu baikara". Eta guztiak harritzeko moduko amaiera prestatu dute.

Abenduaren 29an estreinatu zuten obra Bilboko Alondegian, eta sarrera guztiak agortu ziren. Otsailean eta martxoan, hainbat emanaldi dituzte programatuta antzokietan, baina ikastetxeentzat ere atea irekita dituzte.

Sariak eta aitortpena jaso dituen konpainia

Egunerokotasunak dakartzan zailtasunei aurre egiten laguntzeko tresna gisa ulertzen du Marie de Jongh konpainiak teatroa. Keinu bidezko dramaturgia lantzen dute, eta aurreko hiru lanak sarituak eta aitortuak izan dira, bereziki azkena, *Alabatxo!*. Espainiako Feten jaialdiko antzezlan onenaren saria jaso ostean, Europako eta AEBko hainbat antzokitan eskaini zuten Laida, Martin eta Tomasen historia.



Marie de Jongh antzerki taldea

Tel: 657 704 803

anameabe@euskalnet.net

www.tartean.com



Fitxa artistikoa

- Dramaturgia eta zuzendaritza: *Jokin Oregi*
- Aktoreak: *Tomás Fernández Alonso, Ana Meabe, Javier Renobales*
- Espazioaren sorkuntza: *Azegiñe Urigoitia eta TARTEAN Teatroa*
- Eskenografiaren eraikuntza: *ATX Teatroa*
- Atrezzo: *Javi Tirado*
- Jantziak: *Azegiñe Urigoitia*
- Argiztapen diseinua: *Milakamoon*
- Musika: *Santiago Ramos*
- Diseinu grafikoa: *Txapo creativos*
- Argazkiak: *Guillermo Casas*
- Teknikaria: *Bea Santolaya (Tarima)*





Elixabete GARMENDIA

KAZETARIA

Liburutegiko apaletan hautsa kentzen, topatu berri ditut bi koaderno eskolak; 1963-1964 ikasturtekoak dira, hamar urtetik hamaikarako bidea egin nuen kurtsokoak.

Tintaz hasieran, boligrafoz gero, testuak urdinez, gorri izenburuak eta azpimarratu beharrekoak, badaude aritmetika edo geometriako ariketak, gramatika-koak eta natur zientzietako lezioak, baina toki nagusia, kopuruz eta tratamenduz, Espainiako historiako pasarteek eta erlijio katolikoko gaiek hartzen dute; gainera, testuaz gain marrazkiak ere badaramatzate, alpino arkatzekin pintatuak.

Ikasturtea hasi eta berehala hor ageri da, urriaren 12an, "Día de la Hispanidad" harro bat, Kolonen karabela eta guzti. Azaroaren 20an: "Día del dolor. Viendo los gobernantes republicanos que la inteligencia y patriotismo de José Antonio impedían conseguir sus propósitos, decidieron acabar con él". José Antonio, jakina, Primo de Rivera, Falangearen sortzailea.

Handik egun gutxira, abenduaren

Sorgin-ehizatik jaiotako eskola

3an, dictado batean, testuinguru hartan gorri markatuta egon behar lukeen esaldia harrapatu dut: "En Huesca se ha declarado la huelga de los trabajadores del hierro". Huescan 1963an ba ote zen burdin langile grebalaririk? Bistan da, esaldiaren helburua zen h-ak non jarri erakustea, eta hortik Huesca eta huelga kitzetze hori.


Ordurako huelga hitza ezagutzen genuen, Beasaingo CAFen 1961ean izana baitzen huelga; orduan ikasi genuen hitz arrotz horren esanahia, ez eskolan, etxeko sukaldean baizik, krisi hitza ezagutu genuen bezala. Izan ere, eskolan, hurbilekoa apenas existitzen zen. Gogoan daukadan erreferentzia bakarra hau da: behin maistrak esan zigula Ernio mendia zela Gipuzkoaren erdi erdia. Gainerakoan, geografian, penintsulako mendikate guztiak ilaran, edo Miño-Duero-Tajo... ibaien zerrenda eta bakoitzen ibilbide osoa, kantatuz ikasten genituen; aipamenik ere ez, ordea, eskolaren albotik pasatzen zen errekarari, Orian isurtzen den Eztandari, edo han barrenean, zerumugan ekialderantz ageri zen Aralar mendikateko Txindokiri.

Ikasturtea bukatzeaz, ekainaren 25ean, azaltzen da "Lección ocasional" bat, ezohikoa erabat. Burgosko Lora eskualdera garamatza —ondo genekien ordurako Lorako paramoaren berri— eta kontatzen du nola Valdeajos en petrolio topatu duten, eta nola albisteak "...ha llenado de alegría no solo a los vecinos de Valdeajos sino también a todos los españoles".

Valdeajos en arrastorik ere ez, interneten ikusi dut 1964ko aurkikuntza hark izugarriko oihartzun mediatikoa izan zuela, No-Dotik hasita. Hor dago salbuespeneko lezio haren zergatia: eskolan ez zen historia partzial eta fosildua bakarrik ematen, Fraga Iribarne ministroaren propagandari ere adi zegoen gure maistra.

Zaplazteko bakarra jaso nuen eskola garai osoan, eta hura izan zen arratsaldea betetzen zigun laboreetako klasean. Beste ikaskide batzuek okerrago pasatu izan zuten, zigorrak solte eta irainik ere ez zen falta izaten: zote, pelotón de los torpes... cabeza de chorlito zen kalifikatiborik xuabeena. Urtetara, Andrés Sopenak El florido pensil liburua argitaratu zuenean —gero Tanttakakoek antzerkira eraman zutena— hartu genion mendekua, umorea arma, jasatea suertatu zitzaigun eskola hari.

Orain, Nafarroako agintariek D erduaren inguruan muntatu duten sorgin-ehizaren berri entzutean, halako hotzikara bat sentitzen dut bizkarrezurrean. Maisu-maistren gerra osteko garbiketarik jaiotakoa zen gure eskola mota hura; hainbat maisu-maistraren odolaren gainean eraikia. Urbasatik pasatzean, aldiro kontatzen zigun aitak, 1936an hara amilazaritako maistra baten oi huak egunetan entzun omen zirela; hala esaten omen zuten ingurukoek. Aurtengo udaberrian, Aranzadikoek Urbasako leize batean topatu dituzten hamar gorpuen artean, Camino Oskoz izeneko maistra errepublikarrarena izan omen daiteke bat.



"Umorerik ez daukan pertsona ez da hezkuntzarako. Irakaskuntzan ari den pertsona batek umore handia eduki behar du. Eta sormena".

Iñaki Murua

2014 hezitzailea: hezkuntza komunitatea indartzeko **urtea**



Hazi Hezi
harpidetza
20 euro urtean



www.hikhasi.com



Ume-eramaileak eta Haziera
Portabebés y Crianza

Meitai Maitie martengoa hiru hitzaldi antolatuko ditu: **Ibone Olza** Psikiatra eta idazle ezagunaren eskutik, ama eta haurren zerebroak erdize momentuan duen garrantzia eta haurren zerebroan erditzeak izango duen garrantzia hitz egingo ditu. Ondoren, **Gure hurbileko 4 emagin** ek puerperio garaiko emozioez hitz egingo hitzaldi parte-hartzaile bat eskainiko digute, bertan, **Monica Blas** emaginak emakumearen sexualitatean epilotomak izan dezakeen eraginaren inguruko ikerketa azalduko duetak. Eta azkenik, urtero bezala, **Gure haurtzaroari begira** jarriko gaitu **Laura Gutman** psikopedagoga eta idazle Argentinarrak gure gaurkotaruna habetu ulartu ahal izateko.

Hitzaldiak

Aranzazu hotelean. Antigu auzoa, DONOSTIA

IGANDEA 9

goizean eta arratsaldean

Martxoaren 9an,

10:00etatik 12:00etara



Ibone Olza

CEREBRO EN EL PARTO

Edukia. "Pats estia, zihar-heste, bueltak, letu sufrimendua, ur zikinak, min jarasunik" ... Erditzeaz gauza asko eta karagarrak esan dizkigute. Baina ia inork ez dugu azaldu erditze gertaera sexual bat dela, maitasuneko, eta... neuronal Erdibetaren zerebroa orainbe sumatzen hasi garek misterio bat da. Erditzean ezanda neurohormonal oso bat gertatzen da, bi zerebroan arteko elkarrizketa bakar eta errepikaezin bat: erdibeti eta jaioz den haurren artean. Zerebroa erditzean aldatu egiten da, zuzendu egiten du eta maitasun sinfonia bat orkestratzen du, umelakirik kanpo irtitzen hasten denarekin maitasuneko lehen topatzean bukatzen den sinfonia. Amaren eta haurren zerebroan erditze prozesuan gertatzen diren ulertzeak, ideia bat ematen digu, askotan erdibetian eta jaio berriari egiten zaizkien diriko manipulazioek izan dezaketelarik maitasunaz. Erditze prozesuan dauden zerebroak gonbidapan bat dira, erditzearen bidia ikuspegi neurobiologiko berrituz betetik kusteak, milaka urteko jakintzak integratuz zientzia aitzindarienekin.

16:00etatik 19:00etara

Mónica Blas eta
Gorane Lozano Mungiala
Arazo emagin zentralak,
Elisa Fernandez zarautzaira
eta Kata Legarra garrakarra

Gure hurbileko 4 emagin

EMOCIONES EN EL PUERPERIO

Edukia. Puerperio edo erditze ondorengo garaiko emozioez hitz egingo hitzaldi parte-hartzaile bat eskainiko digute: puerperio garaiko emozioak, be durrak, emakumearen alaketak, bikotean alaketak, amatasun-alatasuna, familia, gizarte, bakardadea, laguntza faltak, kritikak... eta bukerari, Monica Blas emaginak emakumearen sexualitatean epilotomak izan dezakeen eraginaren inguruko ikerketa azalduko digu.

Nori zuzentduak. Guraso, profesional, irakasle, hezitzaile, psikologo eta emagin.

> SARRERAK

IGANDEA: 25€

ASTELEHENA: 50€

BIEGUNAK: 70€

5 lagun edo gehiako taldeentzako prezio berea. Kontatu jami gurekin hantmanetan.

Haurra bat babatu ez dago margo eragozpenik hitzaldian berarekin etor zitezela.

ASTELEHENA 10

arratsaldean

Martxoaren 10ean,

17:00etatik 20:00etara



Laura Gutman

LOS ALCANCES DE LA BIOGRAFÍA HUMANA
COMO SISTEMA DE INDAGACIÓN PERSONAL

Edukia. Gure askori, aita edo ama bihurtzen garenean galdere asko sortzen zaizkigu gure haurrei eman nahi dugun heziketaren inguruan. Ez dizkigu gure be durrak, lotsak edo eta zaitasunak transmititu nahi eta hori lortzeko estrategia bira abiatzen gara. Bide horretan edo buruan dabitzkigun galdere horiei erantzuna bilatzeko nahi horretan Laura Gutmanek sortutako Biografia Humanaren teknika lagungarri sueta dakiguke. Aipaturiko teknikak, gure haurtzaroari begira jarriko gaitu, egun ditugun zenbait jokaera ezagutaraziz. Ezin ahaztu baitezakegu, neurri handi batean, gaur egungo gure izatea, bizitako haurtzarok baldintzatu duela.

Hitzaldi hau gurasoei, hezitzaileei, psikologoei eta azkenik haiz, haurra lorri den edonori dago zuzentua. Eta bertan, pertsonen artean gehien errealizatzen diren kasu praktikoak azalduz, norbere kasu konkretuak ulertzeko klabeak emango dizkigu.

> INFO +

627 418 907

635 700 986

info@meitaimaitie.com

www.meitaimaitie.com

©ENDA, Martina Mitz kabea, 3,
20200 BEASAIN, Gipuzkoa